



Bertsio elektroniko honen egilea: Iñaki Camino.  
Iturria: *Tratado de como se ha de oyr missa*, Iuan de Beriayn.  
Carlos de Labayen, 1621.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/B/BeriainMeza.htm>

## **TRATAZEN DA NOLA ENZUN BEAR DEN MEZA**

**Juan Beriain**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**TRATAZEN DA  
NOLA ENZUN BEAR DEN MEZA**

**TRATADO DE COMO  
SE HA DE OYR MISSA**  
escrito en Romance y Bascuence,  
lenguages de este Obispado de Pamplona

Dirigido al muy illustre Cabildo de Pamplona  
en sede vacante

Compuesto por el Licenciado  
don Iuan de Beriayn, Abad de Vterga

Año 1621

EN PAMPLONA  
Con licencia del Real Consejo de Nauarra:  
Por Carlos de Labayen.  
*Vendense en la misma Empronta, a la Cuchilleria*



## LENBIZIKO KAPITULOA

### Zeñetan adizera ematen baita zerden Meza

Gauza ziertoa da eze gauza bat eginen badu persona batek ongi bear duela jakin zer gauza den, eta nola bear duen egin, berzela eztuela eginen, edo eginen duela gaizki ala bada Meza ongi enzuteko, zeñetan baitirade misterioak ain andiak bear du jakin zer den, eta nola bear duen enzun, berzela eztu enzunen ongi.

Meza da sakrifizio egitea Kristo gure Iaunas, eta adizera emate bat zer guregatik egin izandu zuen bere bizian, eta heriozean, eta hau nola den obekiago adizeko bear da jakin nola Mezan daukagun presentean Iaungoikoaren Semea gizon egin zena, zein konzebitu izandu baitzen Andre dona Mariaren sabelean Espiritu sanduaren obras, eta jaiio zena arenganik geldizen zela beti birjinik, eta zirkunzidatu zutena, eta Errege Magohek adoratu, tenplora eramo zutena, eta Simeon Sazerdote sanduak bere besoetan artu izandu zuena, Doktoren artean egondu zena, zein ibildu baizen Iudeako, eta Galileako karriketean, eta plazetan, eta zeinbat etxetan, erakusten guziei zeruko bidea, eta orai Mezan Sazerdotearen agotik enzuten dugu Ebanjelioa zeñetan baitaude eskribaturik horduan munduaren salbazalleak predikatu zituen itzak berak, eta ala orai ezta izanen probetxu gutiagoreki baldin nai badugu aihesas aprobetxatu, alas eta dutenean horduan zuten birtutea bera, Mezan daukagu presentean Sakramentu, eta sakrifizio sanduau, orai Mezan errezebizen, eta ofrezizen dena ordenatu zuena, orai egiten dituela milagro aihek berak Orzegun Sanduan egin zituenak Sakramentu sanduau ordenatu zuenean, zeren horduan milagro egiten zuela itzen birtutes izuli zuen ogia bere gorpuzean, eta ardoa bere odolean ematen ziotela fakultade eta podoreau bere diszipuluei, eta aihen ondoreko Sazerdote guziei, eta ala orai Sazerdoteak meza koan erraten dituen bezala itz aihek berak aren izenean izulzen du ogia Iesu Kristoren gorpuzean, eta ardoa aren odolean, alako maneras eze itzak konsagraziokoak erranes gero, ezpaita an ogirik, eta ardorik batere baizik aien lekuan Iesu Kristoren gorpuza, eta odola, eta ala bear da aditu erraten denean izulzen da ogia Iesu Kristoren gorpuzean, eta ardoa aren odolean nondik dator erratera S. Ioan Krisostomo, eze Mezan daukagula Orzeguneko mai guzis abarasa hura, eta ala Mezan eztugula deusherere

gutiago an zen baino, Mezan daukagu presentean Iaun hura, zeñek munduan zebillenean errezebizen baizituen bekatariak, eta guziei ondasun egiten ziotena orai miserikordia, eta ondasun, eta podorea horduan zuenareki berareki, eta deseoareki konberti ditezen, eta ala barkazeko bekatarierei beren bekatu guziak.

Emen Mezan daukagu presentean munduan zebillenean, anbat milagro egin zuena, eta orai Mezan here egiten dituela, zeren orai here Sazerdoteak erran itzak konsagraziokoak, eta Iesu Kristok milagro egiten duela izulzen du ogia bere gorpuzean, eta ardoa bere odolean, bada hau ezta milagro txikiago esposalletan egin zuena baino, non uras egin izandu baizuen ardoa, aitzetik da andiago, eta ezta milagro txikiago orai Mezan egiten duena baita, eze Iesu Kristo zeruan dagona bere Aita eternoaren eskuian Iaun hau berau an faltarik egiten eztuela baitago hostia konsagratuan, eta Kalizan ardoa konsagratus gero, eta Iaun hau berau mundu guzian hostiak, eta kaliza ardoa konsagratus gero dauden guzietan milagro hau diot ezta txikiago Lazaro resuzitatu zuenean egin zuena baiño, aitzetik da andiago. Mezan daukagu presentean Iesu Kristo atzeman zutena, eta gaizki tratatu Ierusalengo karriketean, eta etxetan azotatu zutena ain kruekuro, zeinei ezarri baizioten buruan koroa errenes eginikakoa egiten zutela harzas eskarnio, eta burla, idukiturik burlasko Erregea zela, eta bere soñetan eraman zuena gurutzea Kalbarioko oianera, eta bere bestidurak edeki, eta billosirik itzees oñetan, eta eskuetan atrabesaturik, krueldade andiareki, odola txirriaka zeriola goititu zutena, non ofrezitu baizen gurutzean, guregatik ilzen zela, bada Iaunau berau daukagu orai Mezan presentean, bera ofrezizen dela Aita eternoari guregatik, eta ala sustanzias den bezanuates, da Orzillare Sanduan ofrezitu zena bera, nola baitio Konzilio Tridentinoak, solamente orai ofrezizen den manera mota da diferentea, zeren Orzillare Sanduan gurutzean dolore eta tormentu andia sufrizen zuela, eta bere odola itzees eskuetan, eta oñetan egin ziskioten zaurietarik ixurzen zuela, eta trabaju ohek errezebizen zituela, munduan ziraden gizon gaistoenetarik, zeñek etsai andiak bezala krueldade andiareki piedaderik batere bage atormentazen, eta afrentazen, eta injuriazten zutela ofrezitu zuen bere gorpuza, eta bere odola bere Aita eternoari gurutzean guregatik ilzen zela, baia Mezan ofrezizen du bere gorpuza eta odola, dolorerik, eta tormenturik batere bage, eta odolik ixuri bage, aitzetik zeruan duen gloriareki, eta majestadeareki berareki, eta komunkiro sazerdote sanduek Iaungoikoaren adiskidek, eta zeruizariiek ofrezizen dutela, eta ez horduan bezala itz gaiztoak erraten dituztela aitzetik adoraZen, reberenziazen eta alabazen dutela.



Mezan daukagu presentean irurgarren egunean iletarik resuzitatuzen Iauna, eta gero zerura igan zena, eta bere Aita eternoaren eskuian dagona, zeruko, eta lurreko Erregea, eta Iauna den bekala, bada Iaunau berau bere personas yori fiatu bage negozio hau ez Aingiruei, eta berzeri, dago Mezan aldarean Sakramentu sanduan adizera ematen digula, eta onetako memoriara ekarzen digula, zer Iaun onek egin izandu zuen bere bizian, eta heriotzean guregatik, oroitgaitezen harzas, eta eman drazkiogun graziak, eta alaba dezagun eta zeruizatu, eta ala aprobetxa gaitezen Iaunonek bere bizian, eta heriotzean merejitu ziskigun ondasunes.

Intenziorik prinzipalenetatik bat Kristo gure Iaunak, izandu zuena Sakramentu eta sakrifizio sanduau ordenatu zuenean zen egin zedin aren memorian ala manatu zuen erraten ziotela bere Apostoluei, eta aien ondoreko Sazerdotei misterioau zelebrazen duzuen horos egizue nizas oroitzen zaratela zer egin dudan zuengatik neure bizian, eta heriotzean, onetako geiago gu obligazeagatik etorzen dela Iaunau zerutik Aldarera Meza erraten denoros, kunplizen digula bere Elizari prometatu zuena konsidera zazue zueki geldizen naizela munduaren azkeneraño, onetako arzen duela Sazerdotea aren ministroa bezala, aren partes, eta aren ize-  
nean atra dedin Meza erratera beztiturik beztidures zein eliza sanduak baitauzki ordenaturik Espiritu sanduak erakusirik zeñek adizera ematen baitigitue, zer Kristo gure Iaunak guregatik egin zuen bere Pasioan.

Lenbiziko beztidura Meza errateko Sazerdoteak arzen duena, deizen da Amitoa, zeñes estalzen baitu burua, eta gero erausten du lepotik bera, onek adizera ematen digu beloa zeñes soldadoek pasiosko gauhean Iesu Kristos eskarnio, eta burla egiten zutela estalzen ziskiotela begiak, eta ala ematen ziskioten bearralzekoak erraten ziotela adibinazak nork ematen drauan manera onetan burla egiten zutela, eta onetan plazer arzen, eta onla denbora pasazen zutela.

Gero arzen du Alba, baita elizako atorra, zein Meza erraten duenak janzizen baitu, onek adizera ematen draugu beztidura txuria, zeñes Herodesek manatu baizuen beztiti zezaten irudirik hari zela gizon heroa eta jui-  
zio bagea zeren galdeginika aniz gauza ezpaizio respondatu, eta beztidura ones beztitu, eta Herodesek, eta Korteko jendeak, eta soldadoek egin zuten arzas burla, idukiturik herozat.

Gero arzen du zinta zeñes erzizen baitu gerria, onek adizera ematen draugu nola Kristo gure Iauna lotu zuten kuerdes pilare batean non azotatu baizuten krueldade andiareki.

Gero arzen du Manipulua ezkerreko besoan, onek adizera ematen digu kuerda aies zeñes Orzegun Sanduan Iesu Kristo, atzeman zutenean lotu baizuten.

Gero arzen du Estola eta lepotik bera, eta bularretan atrabesazen du alde batetik berzera, onek adizera ematen digu soka zein ezarri baizioten Kristo gure Iaunari lepoan seguroago eramozeagatik, eta afrontu geiago emateagatik harzas tirazen ziotela Ierusalengo karrketan.

Azkenean guzien gañean ezarzen du Kasulla zeñek adizera ematen baitigu gurutzea Kristo gure Iaunak bere soñetan eramo zuena Kalbarioko oianera artan guregatik ilzeko.

Kalizak zein baitrama Sazerdoteak Meza errateko adizera ematen digu obia zeñetan orzi izandu baizen gure Iauna munduaren Salbazallea.

Patenak kalizaren gañean dramanak, adizera ematen draugu, arria andiura zein ezarri baizioten Kristo gure Iaunari obiaren gañean.

Korporaleek, adizera ematen digute maindre garuia, eta txuria, zeñes mortajatu baizuten Kristo gure Iaunaren gorpuza.

Aldareak adizera ematen draugu Kalbarioko oiana, non ill izandu baizen munduaren salbazallea.

Gauza ohek guziok da ongi konsidera dizagun, eta ohasas oroit gaitezen eta eman drazkiogun Iaunoni graziak, eta zeruiza dezagun zerengatik gure amorekatik pasatu zuen, eta sufritu anbat dolore eta trabaju, eta heriotzea ain dolore, eta pena anditakoa, da Iaunonek guregana daukan amorioa ain andia eze orai nezesario izandu baliz trabaju guziak, eta heriotzea sufrizera eginen baizuen guregatik, baia nola hau ezpaita konbeni, eta bear nai du egunoros egin representazio hau baita guri memoriara ekarzea zer guregatik egin duen, onetako etorzen dela zerutik Aldarera Meza erraten den horos, graziak eman drazkiogun, eta arrazio den bezala aren zeruizuan enplea gaitezen nai duela Iaun onek atra dedin sazerdotea Meza erratera orai erran dugun beztidures rebeztiturik aren lekuan, eta ala atrazen denean Sazerdotea Sakristiatik rebeztiturik begiratu bear diogu Iesu Kristori berari bezala ikusi baigindu zioaienean guregatik ofrezizera, zerengatik Sazerdoteak rebeztiturik doaienean Meza erratera representazen du Iesu Kristo gure Iauna atrazen dela Pilatosen etxetik gurutzea soñetan duela artan Kalbarioko oianean guregatik kruzifikaturik ilzeko.



## BIGARREN KAPITULOA

### Zenbat agradazen zaion Iaungoikoari Meza enzutea han ofrezizen zaion sakrifizioagatik

Nola Kristo gure Iaunak bere bizian, eta heriotzean egin zituen ondasunak, eta obra guziak izandu baiziraden aren Aita eternoak ordenaturik, aren gogora egiteagatik, eta aren amorekatik, eta nola gauza ohiek guziok baitauzki aren dibina Majestadeak orai ain presentean, eta ain agradazen zaizkiola nola obratu zituenean, eta nola orai Mezan ofrezizen baizaio Iesu Kristo bera, gauza egin, eta merejitu zizkigun guzieki, emendik da, eze Mezan ofrezizen den sakrifizioa dela abentajatuago, eta obeago, eta geiago agradazen zaiona konparaziorik bage, ez es berze sakrifizio guziak.

Sakrifizio ofrezizea, da Iaungoikoari zeinbait hark kriaturikako gauz ofrezizea ezaguzen dugula Iaunau dela Iaungoiko egiaskoa, eta ala guzien kriazalea, eta guziei ondasun eginzalea zeñenganik baititugu ondasun guziak, eta nola Iaunau baita solamente Iaungoikoa berdaderoa, eta egiaskoa, eta ez berzerik ala Iaun **hon** bear zaio ofrezitu sakrifizioa, eta ez yori berzeri.

Ezta izandu munduan eta ezta jenderik ain barbarorik, eta adimentu gutitakorik, ezpaitute ofrezizen sakrifizioak, bere Iaungoikoat dauzkiteinei falsoak izanagatik, baia Iaungoiko egiazkoaren baitan sinestatu dutenek Iaun honi beroni, nola egin izandu baizuen Abel justoak Iaungoikoaren zeruizariak ganado zuen oberenatarik eskojiturik, eta gero Noe justoak pasatus gero tenpestade dilubioko andihura egin zuen Aldare bat, eta han ofrezitu zuen sakrifizioa gelditu zen animale garuietatik, eta sazerdote Melkisedek ofrezitu zuen misterio anditako sakrifizioa ogia, eta ardoa, eta patriarka Abrahamnek auniz aldiz leizen da nola egin zituen Aldareak, eta aietan ofrezitu zituen sakrifizioak, eta berze aunizek here, baia manera onetako sakrifizioak gelditu zirade, eta akabatu.

Orai Ebanjelioko, eta graziasko denbora ditxoso onetan ofrezizen diogun sakrifizioa Iaungoikoari da Iesu Kristo munduaren salbazalea Orzillare Sanduan guziengatik ofrezitu zena, eta ala sustanzias den bezan-

bates da sakrifizio hura bera nola baitio Konzilio Tridentinoak hau da gauza konsuelo anditakoa ongi konsidera dezanarendako zeren hura bera denean, bear du orai Mezan ofrezizen dugunean izan ain poderoso, eta bear du, izan anbat birtute, eta fuerza guri geren bekatuak andiak izanagatik barkazeko, eta bekatuengatik zor dugun zor guzias Iaungoikoa pagazeko, eta bear du izan orai ain poderoso aren medios erdesteko Iaungoikoarengatik konbeni zaizkigun gauza guziak geuren arimen salbazeko nola erdeziko baikinuen Orzillare sanduan baldin haurkendu bagina presentean Kalbarioko oianean, Kristo gure Iauna gurutzean ofrezitu zenean, eta ala da eze orai Mezan ofrezizen zaionean, Aita eternoari agradazen zaio anbat nola orduan, eta ez solamente agradazen zaio sakrifizioau geiago ez es berze gauza ofrezi al dakioken guziak baieta ezin agradatu zaio beinere, eta ezin agrada dakiok gauzarik baterere baizik sakrifizionen medios, nola erran izandu baizuen Aita eternoak Iesu Kristo bataiatu, eta transfiguratu zenean: Au da ene semea onerizia zein agradazen baizat denagatik zeren baita Iaungoiko bat eneki, eta Espiritu sanduareki, eta ala ain ona, ain poderosoa nola ni eta Espiritu sandua zeñengatik agradazen baizazkit berze gauza guziak, eta ez berzela, bada Iaun hau zein anbat agradazen baizaio zeñes anbat gusto, eta kontentu errezebizen baitu, igorzen digu Aita eternoak zerutik Meza erraten denoros guk igor drazogun ofrezizen diogula Mezakoan sakrifizioan, eta hau da meza erran nai baitu igorzea, zeren nola leen igorri izandu baizuen Aita eternoak bere semea mundura egin zedin gizon, eta ofrezi zedin gurutze batean guregatik ala orai igorzen draugu zerutik aldarera Meza erraten denoros Sakramentu sandura, Kristio fielek igor drazoten Aita eternoari sakrifizioan ofrezizen diotela, eta ala aren medios erdezi dezaten Iesu Kristo gure Iaunak bere bizian eta eriotzean merejitu ziskigun ondasun guziak, nola baitio Konzilio Tridentinoak erraten duela egunoros ofrezizen diogula sakrifizioau zeren eman dakigun Orzillare sanduan gurutzean ofrezitu zenean merejitu ziskigun ondasunak, eta aren medios barka drazkigun egiten ditugun bekatuak.

Erran denetik atrazen da lenbizikorik eze Meza dela gauza bat zeñetan honra geiago ematen baizaio Iaungoikoari, eta geiago agradazen zaiona ez es berze gauza guziak zeren artan ofrezizen baizaio erran den bezala Iesu Kristo zeñek geiago honra ematen baitio ez es berze gauza guziek, ezin Andre dona Mariak, Aingiruek, eta sandu guziek eman drazokete anbat honra, eta kontentu nola Iesu Kristok, alaber atrazen da eze Iesu Kristori agradazen zaiola geiago Meza ez es berze gauzak zeren aren borondatea baitago gauza guzietan konformaturik bere Aita eternoareki,



eta ala erran dezakegu eze Birjina Mariari, eta berze sanduei ezin eman drazokegutela anbat honra, eta kontentu, eta ezin erakutsi dezakegula berze gauzetan garadela aien debotoak, eta afizionatuak, anbat nola ofrezizeas Iaungoikoari Mezan ofrezizen den sakrifizioa, aien izenean, eta honran, ez zeren ofrezki baititeke sakrifizioa sanduei zeren hau yolako maneras ezin egin diteke nola baitio Konzilio Tridentinoak solamente bear zaio ofrezitu Iaungoikoari, oroitzen garadela sandues, aiek egin zituzten ondasunes, eta obres, eta orai zeruan ematen dioten glorias, guzies graziak ematen dizkiogula, eta oneki batean ofrezizen dizkiogula aiek egin zitusten obrak, eta ondasunak, eta aietan supli ditezen guri falta zaiguna, eta guregatik bitartekozale gerta ditezen, otoitz egiten dutela Iaungoikoaren aurrean zeruan, zeñes gu oroitzen baikarade lurrean.

Bigarrena, erran denetik atrazen dena da, eztela joan bear Mezara gogo gaizes, eta ezin geiagos bezela, baizik borondate ones eta gogotik, alas eta Mezan egiten zaionean Iaungoikoari anbat zeruizu, eta ematen zaionean anbat kontentu nola erran baita. Zer intenzioreki, eta nola bear den Mezako sakrifizioa ofratu gero erranen da.

## IRURGARREN KAPITULOA

**Zer egin bear den leen Meza  
ongi enzuteko,  
eta zer intenzio eramo,  
eta zer reberenziareki,  
eta debozioreki egon bear den**

Meza enzutera goazenean egin bear dirade bi gauza, lenbizikoa da, konsideratu nora noaie, eta zertara. Erregen etxetara doazenak aieki minzazera, eta negoziazera, lenbizikorik pensazen dute, eta konsiderazen, eta auniz aldis zer tratatu bear duten, eta negoziatu, eta nola baieta gauza inportanzia guttiago diradenetan ongi egiteko bear da leenik konsideratu, zer egin bear den, eta nola San Basiliok dion bezala erraten duela baldin ofiziale batei zeñei ematen baizaio obra bat egin dezan, artan pensa ezpadez, eta nola egin bear duen, ezta eginen, edo eginen du gaizki, bada gauza ain gutti inportazen denetan ongi egiteko bear denean lenbizikorik pensatu eta konsideratu zer egin bear den, eta nola, arrazio geiago da gauza ain andian nola baita Meza enzutea, leenik konsidera dedin nola doaien Meza enzutera, eta nola bear duen enzun, berzela ezta ongi enzunen.

Bada Meza ongi enzuteko, lenbizikorik egin bear dena da, alas eta erran denean, eze Meza dela representaze bat adizera emate bat zer Kristo gure Iaunak eginzuen guregatik, bere bizian, eta heriotzean, egin kontu doaiela Kalbarioko oianera, non ill izandu baizen munduaren salbazallea, an presentean aurkenzera konsiderazios bezanbates oroitzen dela, eta konsiderazen duela zenbat trabaju, eta zein andiak pasatu zituen horduan Iaunonek gure amorekatik, eta gu salbazeagatik, alaber izanen da ongi oroitzea misterio aies, zeñek Meza enzuten duenean Eliza ama sanduak zelebrazen baititu, eta partikularkiro egiten baitu memoria denbora denaren konforme, nola Eguberrietan Iesu Kristoren jaiozeas, gero zorzigarren egunean nola zirkunzidatu zuten, gero Erregen egunean nola Errege sanduaiek adoratu zuten, eta ala berze misterioes, bere baitan egiten duela kontu ezkila adizen duenean deizen dutela, aurkin dedin presentean Kristo munduaren salbazalleak guregatik, eta gure onetan bere bizian, eta heriotzean obratu zituen misterioetan, eta konsideratu, eta pensatu zer



eginen nuen, baldin orai dudan fedearaki aurkendu baninza Iesu Kristoren Iaiozean, edo Erregek adoratu zutenean, edo berze gauza egin zitue-  
nean, klaro dago eze edozeñek erranen duela joanen zela gogotik mun-  
duaren Salbazallearen ikustera, adorazera, eta alabazera, eta graziak emate-  
ra anbat guregatik egin duen ondasunengatik, eta deseoreki zeruizaze-  
ko, eta agradazeko nai luen gauzetan, eta aprobetxazeko ain okasio onas  
eskazen liola ondasun auniz, eta andiak ala arimarendako, nola gorpuza-  
rendako, ala bada joan bear dut Meza enzutera deseoreki ikusteko mun-  
duaren salbazallea arimaren begies Sakramentu sanduan fedearen medios  
zinestatzen dudala Aldareko Sakramentu sanduan dagola Iesu Kristo, hau  
da Iesu Kristo ikustea fedear den bezanbates, eta joan bear dut deseore-  
ki Iaunau adorazeko, alabatu, eta graziak emateko, eta deseoreki, eta pro-  
positureki zeruizazeko, eta agradazeko nai duen gauza guzietan, eta eska-  
tu nezesidade dudan gauza guzien erremedioa, barka drazkidan neure  
falta guziak, eta aurrera didan fabore emendazeko, aren zeruizuan bizize-  
ko, eta deseoreki atrazeko probetxu auniz ain okasio onetik.

Eta zeren bere partetik ezar eztezan estorburik, bigarren gauza egin  
bear dena da, gendu bereganik bekatu mortale dena, eta egon Iaungoiko-  
aren grazian, zeren bekatu mortaleak estorbazen du eztezagun erdezi  
Iaungoikoarengatik Mezakoan anbat probetxu, nola atra baitezakegu  
estorbuau gen badezagu, zeren bekatu mortalean dagona da Iaungoikoa-  
ren etsaia, bada persona bat baliaie mertxede eskazera bere Erregeri, eta  
jaunari jakinika aren kontrarioa, eta etsaia dela erran lazokete, nola atre-  
bizen den eskazera Erregeri mertxede egin drazon, jakinika dagola aren  
desgrazian, ala bada Mezan erdesteko nai duena, eta konbeni zaiona, bear  
du gendu bereganik bekatu mortalea baldin artan badago, duela urriki, eta  
damu biotzean, bere bekatu egines Iaungoikoaren amorekatik, zeren bai-  
tirade aren dibina Majestadearen kontra: daukala proposito firme bat  
emendazeko, eta konfesazeko, urrikimentu, eta damutasuna badu bere  
bekatu egines bear den bezala, deizen baita kontrizioa, onen medios  
bereala genduko zaizkio bekatuak, eta geldituko da Iaungoikoaren gra-  
zian, eta adiskide, onla erdeziko du Iaungoikoarengatik eskazen diona.

Intenzio eramo bear dena Meza enzutera doaienean, lenbizikoa, eta  
prinzipalena da, Iaungoikoari kontentu emategatik, eta agradazeagatik  
gauza batean, zeñes anbat zeruizazen baita, nola Mezan egotea, eta har-  
tan ofrezizeas Iesu Kristo bere Semea guzis maitea, eta onerizia.

Bigarren intenzioa, eramo bear dena da, atrazeko al dagien probetxu  
guzia beretako, ete bere proximo lagunendako ala biziendako nola purga-

torioan dauden arimendako, alas eta Mezan egiten diraden orazioak, eta  
sakrifizioa ofrezizen dena, guziendako aprobetxazen diradenean.

Zer debozioreki, eta erreberenziareki bear den Meza enzuten  
denean egon, erranik dago zein justo, eta arrazio den egon gaitezen, ez  
solamente geuren biotzes, eta pensamentues konfesazen dugula Iesu  
Kristo guzien Iaungoikoa, eta Iauna dagola Sakramentu sanduan, eta ado-  
razen dugula geuren kriazallea, eta salbazallea bezala, eta ala ezaguzen  
dugula, ezkaradela digno aren aurrean egoteko bai eta onezas landara  
arrazio da gauden belauriko bi belaunes ijilik, eta geldirik, ez begirazen  
dugula alde batera eta berzera, eta ez minzazen garadela batak berzeare-  
ki, nola askotan auniz egoten baita ezpallirate atrebituko onla egotera  
munduonetako Erregen aurrean.

Egon bear da bada erreberenzia, eta debozioreki. Lenbizikorik,  
zeren Meza enzuten duena baitago Iesu Kristoren aurrean, zeñen aurrean  
jarrizen baitirade belauriko, zeruan diraden Aingiruak, eta sanduak, eta  
lurrean diraden personak, eta infernuan diraden demonioak.

Bigarrena, zeren Meza enzuten duena baitago negoziazen Iaungoi-  
koareki eskazen diola auniz gauza, eta inportanzia anditakoak argatik  
Sazerdoteak erraten du auniz aldiz: *Oremus*, abisazen gaituela otoitz egin  
dezagun zeren hura dela denbora ona negoziatzeko, eta erdesteko Iangoi-  
koarengatik bear dugun guzia, bada nor da eskazera determinazen  
denean persona bati auniz konbeni zaion gauza bat ezpaitio eskatuko  
errespetureki konsidera zazu nola atarietan dabilzan pobreak eskean, zen-  
bat humildadereki, zenbat erreberenzia egiten duten txapela eranzirik, eta  
ohek guziok gizon bati, eta limosna txiki batengatik, bada arrazio geiago  
da gu gauden humildade, eta erreberenzia geiagoreki, Iaungoikoareki  
eskazen diogunean anbat gauza, eta Iesu Kristoren aurrean, eta ain inpor-  
tanzia anditakoak, eta geiago konbeni zaizkigunak, ezez munduonetako  
gauza guziak, zeren Mezan eskazen diogu barka drazkigun aren dibina  
Majestadearen kontra egin ditugun faltak, eta geuren nezesidade guzien  
erremedioa, eta digun fabore, eta grazia ongi bizizeko, eta ala gloria erdes-  
teko, bada gauza ohek dudarik bage dirade geiago konbeni zaizkigunak,  
ezez munduonetako guziak, bada gauza ohek erdesteko Iaungoikoaren-  
ganik, garade gu pobreago, ezez munduan geien diradenak, baitirade  
pederoso, eta abaraz geien denarendako, zeren gauza guziak ala munduo-  
netan bizizeko, nola gloria erdesteko bear ditugunak, erdetsi bear ditugu  
Iaun onenganik, eta ala arrazio geiago da gu gauden erreberenzia, eta  
debozioreki, Iesu Kristo gure Iaunaren aurrean.



Irurgarren gauza, zerengatik egon bear baitugu atenzioreki, eta debozioreki, da zeren orai erran dugun gauza inportanzia anditakoako erdesteko ofrezizen baitiogu presente bat guziz abaratsa, eta balore anditakoa, eta guziz agradazen kaiona Iaungoikoari, baita Iesu Kristo munduaren salbazallea, bada persona batek dramanean urresko taza bat balore anditakoa presentazeko Errege batei, egiten dio zerbait maneras reberenzia eramozeko eskuak garuizen dituela, eta beztidura obrenak arzen dituela, eta ala apainzen dela, eta pensazen duela nola bear dion presentatu agrada dakien bezala, zenbat bada arrazio da, daukagun erreberenzia geiago Mezan gaudenean, alas eta an ofrezizen diogunean, eta presentazen munduaren Salbakallea Kristo gure Iauna, bere ondasun merejitu zizkigun guziheki, eta ez lurreko Erregeri baizik Iaungoiko egjaskoari, baita Errege guzien Erregea, eta jauna gauza guziak dakizkiena, eta nai duen guzia egin dezakena.

Eusebiok kontazen du, eze Erromako jendeak, ofrezizen zituztenean beren sakrifizio falsoak etzutela enzuten pregonarien oiua, baizik erraten ziotela egizue egiten duzuen, pensazen duzuela zer egiten duzuen, zaudete gogos, eta pensamentus egiten duzuen gauzan. Eta Mauruak sarzen diradenean beren mezkitan non juntatzen baitirade Mahomari otoiz egitera, daude ain atenzioreki, eze sentituagatik edozein arroitutu, ezpaitirade meneazen beren lekuetatik, eta ez minzazen batak berzeki, bada arrazio geiago da Kristioak dauden debozioreki, eta atenzioreki Meza enzuten dutenean daudenean minzazen, eta negoziazen Iaungoiko egjaskoareki, alas eta arrazioa, eta Aingeru begirazen gaituena daudenean oiuis, abisazen gaituztela biotzean barrenean gaudela atenzioreki, eta debozioreki konsiderazen dugula, gaudela Iaungoikoaren aurrean, aren Majestadeareki minzazen, eta negoziazen.

Laurgarrena, egon bear dugu atenzioreki, eta erreberenziareki, zerengatik Mezan baizude Aingeru sanduen konpañian gu aieki, eta aiek gureki, dotrina ziertoa da san Jeronimok dion bezala eze, bapedrak duela Aingeru bat begirazen duena, eta gu akonpañazen, gaituena nora nai bagoas hara, eta Mezan daude gureki, gure orazioak, eta otoitzat eramozeko Iaungoikoaren aurrera, guregatik otoitz egiten dutela, eta ala pensatu bear dugu, nola ala baita, eze baldin Mezan badaude eun persona edo gutiago, edo geiago, daudela gureki anbat Aingeru begirazen gaituztenak, bai eta berzerik guziz auniz, zerengatik san Gregoriok dion bezala, Meza-ko misterioak, eta ofizioak egiten diradenean, irikizen dirade zeruak, eta jaizizen dirade Aingeruak Aldarera, eta daude erreberenzia, eta debozioreki adorazen, eta alabazen dutela Iesu Kristo aien, eta gure Iauna Sakra-

mentu sanduan, eta graziak ematen dizkiotela guri egiten dizkigun merxedes, deseazen dutela gu here gauden erreberenzia eta debozioreki Iesu Kristo gure salbazallearen aurrean aiek dauden bezala.

Zierto, da gauza lastima anditakoa, nola egoten baitirade bazuk Mezakoan belauriko solamente belaun bates, alde batera, eta berzera begirazen dutela, eta bazutan batak berzeareki minzazen, ezpallitezke atrebi ala egotera munduonetako Erregen aurrean, ezpaitirade deus Iaungoikoaren aurrean, zeren baillizate deskortesia andia ala egotea da señale onlakoek dutela fede, eta debozio guti, eta onetan faltazen duten bezala faltazen dutela berze Kristioak duen obligaziosko asko gauzetan, Aingiru sanduak, izanen dirade aitor gaizki egoteones, eta atrebimentuones zeren munduonetako Erregen aurrean egitera atrebituko ez liraten, atrebizen baitirade egitera Iesu Kristo zeruko Erregeren aurrean.

Berze bazuk egoten dirade, ez orai erran denok bezala baia erran baititeke aiengatik daudela Mezan gorpuzes den bezanbates, baia biotzes, eta pensamentus landan, imajinazen, eta pensazen dutela munduonetako gauzetan, haziendan, edo honran, edo berze onlako gauzetan, ezpaitirade lekuartako, eta ez denbora artako: san Agustinek dio gizon guziak bere gorpuzareki, eta biotz guzias, eta bere potentzia guzieki bear duela egon Elizan ofizioak egiten diradenean aietan pensazen duela San Bernardok, korura sarzen zenean erraten zuen, ene kuidoak, eta negozioak etxedazue emen arik eta emendik izuli arteraño, zeren noaie Iaungoikoareki minzazera. Mezara ezta eramo bear berze negoziarik, eta kuidadorik, baizik Iaungoikoareki tratatu bear diradenak.





## LAUGARREN KAPITULOIA

### Zer egin bear duen Meza enzuten duenak lenbizitik asi, eta Ebanjelioraño

Atrarik Sazerdotea rebeztiturik sakristiatik Meza erratera, lenbiziko itzak erraten dituenak dirade, *In nomine Patris, & Filij, & Spiritus Sancti*, erran nai baitu, Aitaren, eta semearen, eta Espiritu sanduaren izenean, abisazen dituela Meza enzuten dutenak, daudela Iaungoikoaren aurrean, zeñek, ikusten baititu, eta baitauka kontu zer pensazen, erraten, eta egiten duten, hau onla konsideraturik dauden arrazio den bezala pensamentu guzias Iaungoikoaren aurrean Mezako misterioak zelebrazen, eta egiten diradenean, otoiz egiten dutela aren Majestadeari eman drazoten fabore, eta grazia Sazerdoteari erran dezan Meza ongi, eta an daudenei, alaber enzun dezaten.

Eta nola humildadea baita ondasunen, eta obra onen zimendua, eta zeñetatik asizen baitirade gure platika onak, nola erran izandu baizuen Salomonek, justoak Iaungoikoaren zeruizariak bere platiken leenean konfesazen du, dela bekataria ala bereala erraten du, Sazerdoteak, ni bekataria, konfesazen duela dela bekataria Iaungoikoaren, eta Sanduen, eta gizonen aurrean, eta humildadereki eskazen du, otoitz egin dezaten Iaungoikoari arengatik, ez solamente zeruan dauden sanduek baieta, an Mezan dauden anaiek, Sazerdoteak erraten duenean Konfesioa. Meza enzuten duenak bear du izan biotzean dolore, eta damu bere bekatu egines, pensamentus, itzes, eta obres, bere kriatu zuen Iaunaren kontra, berari egozten diola kulpa, erraten duela, enea da kulpa, enea da kulpa, enea da kulpa guzias andia, propositoreki, eta intenzioreki, ez geiagorik bekatu egiteko, eta andik aurrera aren zeruizuan bizizeko, eta kunplizeko Kristioak dituen obligazioheki, onetako eskazen duela Birjina Andredona Mariari, eta Iaun done Mikel Aingeruari, eta sandu guziei, eta Sazerdoteari otoitz egin dezaten Iaungoikoaren aurrean, arengatik erraten duela, argatik otoitz egiten drahuet Birjina Andre dona Mariari, eta Iaun done Mikel Aingeruari, eta sandu guziei, zaraten otoitz egille Iaungoikoaren aurrean

enegatik eman drazadan fabore, obratan ezarzeko orai daukadan intenzio onau, eta Mezatik probetxu andia atrazeko.

Erran denetik atrazen da, alas eta konfesazen duenean Meza enzuten duenak, dela bekataria Iaungoikoaren aurrean, eta birjina Andre dona Mariaren sandu guzien, eta Meza erraten duenaren aurrean, eztuela erran bear kunplimentus, eztuela erran bear kunplimentus, eta itzes, solamente, nola erraten baitu urriki eta damu bage eta propositu, eta intenziorik emendazeko eztuela erraten duenak, dakitela onlakohek eze Iaungoikoak zeruan dagonak eginen duela aiasas burla, eta Birjina Mariak Iaun done Mikel Arkanjelek, eta Sanduek, argatik erran bear da sines, damu duela bekatu egines, eta propositu, eta intenzio emendazeko.

Eskatus gero Meza enzuten duenak barkazio bere bekatues, Sazerdotea igan Aldarera asizen du Meza, horduan da ongi Meza enzuten duena asi dedin alabazen duela Iaungoikoa denarengatik, zeren baita miserikordias, eta ondasunes beterik dagon Iauna guziei ondasun egillea, eta zeren barkatu baitizkio bekatuak, eta nai izandu baitu, aurkin dedin ain okasio onean aren dibina Majestadearen zeruizazeko, eta agradazeko, eta atrazeko probetxu auniz beretako, eta berze Kristio fielendako.

Eta nola gure ditxa, eta suerte onak etorri bear baitu Iaungoikoaren miserikordiatik, eta ala gureki usa dezan bereala Sazerdoteak erraten du *Kyrie eleyson, Christe eleyson*, erran nai baitu, Iauna idukazu miserikordia, Kristo idukazu miserikordia guzas, eta erraten du bedrazi aldis, irur aldis Aitari, eta irur aldis Semeari, eta irur aldis Espiritu sanduari, eskazen diola urrikari dedin trinitate Iauna, eta barka drazkigun geuren bekatuak, pensamentus, itzes, eta obras, egin ditugun guziak, jakinika ongi Elizak, Iaungoikoaren kondizioa dela miserikordias usazea, eta eztela **fastiaz** porfiatu, izateas, eskazeas, usa dezan miserikordias gureki, aitzetik jakinika porfiatuas, eta auniz aldis eskazeas, obeki erdesten dela guk bear duguna, eta konbeni zaiguna, argatik erraten du anbat aldis, *Kyrie eleison, Christe eleison*, Iauna idukazu miserikordia, Kristo idukazu miserikordia guzas, Sazerdoteak erraten duen bitartean, *Kyrie eleyson, Christe eleison*, Meza enzuten duenak guzias zines esperanza andiareki, eta deseoreki erdesteko eskazen duena, eta determinazen duela genzera estorba dezaken guzia bereganik, bear du otoitz egin Iaungoikoari usa dezan miserikordias guzieki.

Gero erraten du Sazerdoteak, *Gloria in excelsis Deo*. Erran nai baitu, Gloria duela Iaungoikoak goiti zeruan, itz hoek kantatu zituen Aingeruak Eguberriko gauhean, Iesu Kristo gure Iauna jaiozenean, noiz jaizi baizen zerutik Aingeru bat ematera, berria ain ditxosoa, eta ona Arzaiei, zeñek baizeuden irazarririk, beren ardien begirazen, erraten ziotela berri kon-



tentu, eta plazer anditako bat ematen drauzuet, nola egun jaio zaizuen Salbazallea mundu guzia salbatu bear duena, baita Kristo gure Iauna, eta bereala Aingeruoneki berze Aingeru auniz juntaturik kantatu zuten, *Gloria in excelsis Deo, & in terra pax hominibus bone voluntatis*. Berze itzak Elizak ordenaturik dauzki itz ohek, erraten dituenean Sazerdoteak. Meza enzuten duenak egin bear du kontu, ari erraten zaiola berriau ain ditxosoa, eta alegrea, nola jaio den munduaren Salbazallea Kristo gure Iauna, eta ala kontentu, eta alegria andiareki bear du alabatu Iaungoikoa, eta graziak eman bere miserikordia, eta ondasun andiagatik, eta guri egiten digunas zein adizera ematen baizaigu aren jaioze sanduan, eta zeren kriatu baizaitu denbora batean ain ditxosoan, zeñetan gozazen baitugu jaioze sanduau, ain deseaturikakoa, ain denbora luzean, anbat Patriarkak, Profetek, eta berze asko jendek, izandu baizen Adan, eta Ebatik, asi eta arik eta Iesu Kristo mundura etorri arteraño, zeren Martirolojio Erromakoaren kontura mundua Iaungoikoak, kriatus gero, arik eta Iesu Kristo jaio arteraño pasatu baiziraden, borz milla, eta laur ogei, eta emerezi urte, bada konsideraturik suerte, eta bentura ain ditxa anditakoau, enzun dezan bezala, *Gloria in excelsis Deo*, bear du alabatu Trinitate sandua, erraten duela, Gloria, eta alabanzak, eta graziak dituela Aita eternoak, zeren eman baitigu bere Semea munduaren salbazallea, gloria, eta alabanzak, eta graziak dituela Semeak, zeren etorri baizaigu salbazera, eta alaber dituela Espiritu sanduak, zeñen amorio andiak guregana idukiak obratu baizuen Iesu Kristoren jaiozea, eta lurrean dutela bakea gizonak borondate ona dutenek, baitirade Iaun onen mandamentuak begirazen dituztenak, zeren Iesu Kristo gure salbazallearen medios dugu bakea Iaungoikoareki Aingerueki, eta geureki, eta geuren proximo laguneki, eta zeren Iaun onen medios da seguro, barkatuko zaizkigula gure bekatuak, eta da seguro, eta zierto izanen dugula demonioen kontra biktoria gure partetik falta ezpatedi, eta ala gogotik, eta biotzes bear du Meza enzuten duenak laudatu Iaungoikoa erraten duela, alabazen, eta bedekizen zaitugu zaradenagatik adorazen zaitugu, eta graziak ematen drauzkizugu zeure miserikordia, eta ondasun duzunagatik egizu Iauna gureki, zaradenak bezala, eta guk bear dugun bezala miserikordias usazen duzula, eta gure otoitzak enzuten dituzula, zeren zu Iesu Kristo gure salbazallea, genzen baitituzu munduko bekatuak, zaude zeruan zeure Aita eternoaren eskuian, urrikari zakizkigu barkazen dizkiguzula geuren faltak, zeren zu zeurori, eta sollori zarade gure Iauna sandua, Iaungoiko egiaskoa, Aitareki, eta Espiritu sanduareki, zaradela ordu onareki.

Gloria akabatu, eta Sazerdoteak izulirik Meza enzuten dutenetara, erraten du, *Dominus vobiscum*, Iauna da zueki, abisazen dituela, daudela Iaungoikoaren aurrean, eta dagola ikusten duela, eta daukala kontu, zer pensazen, erraten, eta egiten dugun, eta hura dela denbora ona eskazeko aren Majestadeari mertxede andiak, eta ala daudela arrazio den bezala, respetu, eta humildadereki, nola egon bear baitute Iaungoikoari eskatu bear dutenak ain ondasun andiak, alaber Meza enzuten dutenek, respondazen dute, *Et cum spiritu tuo*, zureki here bai, zeren Sazerdoteak Elizako ministroak bezala, nola baita anbat dirokena Iaungoikoareki, eska drazon guzien partes, horduan erraten du, *Oremus*. Orai bada Iaungoikoa dagoan zueki, eta eneki, juntazen ditu bi eskuak, adizera ematen duela onetan, eze erdiesteko Iaungoikoarengatik eskazen duena, eta konbeni zaiotena, egon bear dutela aren Majestadearen amorioan, junto asizen da bada orazioak erraten, batzuetan eskazen dio barka drazkigun bekatuak, berze batzuetan digun bakea, berze aldi bazues, digun fedea, esperanza, eta karidadea, berze batzuetan, digun osasuna arimarena, eta gorpuzarena, eta birtuteak, eta ondasunak salbazeko bear ditugunak, eta berze aldi bazues eskazen dio munduonetako biziaren pasazeko bear ditugun gauzak gure salbazeko konbeni diraden bezala.

Sazerdoteak erraten duenean *Oremus*. Meza enzuten duenak bear du otoitz egin, eta eskatu Iaungoikoari sazerdoteareki batean hark eskazen diona, eta adizen eztuenak zer eskazen duen Latinik, ez jakin faltas eztidila deskonsola, oroi bedi dagola Iaungoikoaren aurrean, eta humildadereki, eta debozioreki erran brazo, Iauna Meza erraten duenak eskazen dizuna Elizako ministrok bezala nik neure partetik areki batean otoitz egiten drauzut eman drazaguzun Iesu Kristo gure Iaunaren medios, hau egiten duela atrako da ongi despatxaturik, zeren san Pablok dion bezala Espiritu sanduak kunplituko du, eztakienaren, eta adizen eztuenarengatik, eta ala emanen zaio eskazen duena, gertatuko zaio gizon leizen, eta adizen etzaion batei bezala, zeñek baitu pleitu bat, eta areki ongi atrazeko, konbeni zaio egostera petizio bat juezaren aurrean, ordenazen dio bere letratuak, eta prokuradoreak leizen du, eta ematen dio adizera juezari zer eskazen duen gizon onek, ez jakinagatik zer datzan petizioan, guziarekin here aren izenean despatxazen da, hare oni gerta dakiko eztakion atra bere auzia deseazen duen bezala, zeren agian ezpaitrama auzi ona, edo ez ongi informatu, edo berze asko maneras. Baia Meza enzuten duenak orai erran den bezala eskazen dena, da zierto emanen zaiola, eta eztiola erranen eztakizu zer eskazen duzun, zeren Mezan erraten diraden orazio



guziak dauzki Eliza ama sanduak, Espiritu sanduak erakusirik, eta ordenaturik, eta ala guziak dirade onak, baita gauza konsuelo anditakoa.

Sazerdoteak orazioak akabatu, eta erraten du Epistola, baita prediku bat zein predikazen baitu san Pedrok, edo san Pablok, edo san Iuanek, Isaiasek, Danielek, edo berze Profetetatik batek zeñen medios Iaungoikoa minzatu baizen, eta erakusten draugu zeruko dotrina, eta bidea, eta nola bear dugun erdezi, eta ala Mezan dagonak enzuten duenean, *Lectio Epistola[e] Beati Petri*, edo *Beati Pauli Apostoli*, egin bear du kontu, nola ala baita san Pedrok, eta san Pablok predikazen digula, nondik atrazen da nola Epistola bear den enzun debozio andiareki, eta deseoreki atrazeko probetxu, alas eta askotan joaten garadenean deseoreki enzutera fama duen predikazalle bat, eta ez izanagatik ain famosoa, enzuten dugu horon bates, itzik baterere erran bage, nola bada ain denbora guttitan, nola baita Epistola erraten dena, eztugu enzunen ongi, eta debozioreki alako predikazalleak, ain onak, eta fama anditakoak, nola baitirade san Pedro, san Pablo, berze Apostoluak, edo Profetak, alas eta fedeak erakusten digunean aien dotrina dela Iaungoikoarena, eta ala ain probetxosoa gure arimendako, ardi zagun aiek ematen dizkiguten konsejuak, argatik nai du Elizak lei ditezen, adizen eztauenak zer erraten den Epistolari, otoiz egin brazo Iaungoikoari, eman drazkion adizera, aren honrako, eta bere arimaren onetan diraden guziak obratan ezartzeko.

Epistola akabatu, eta respondazen du Mezan lagunzen denak, *Deo gratias*, erran nai baitu: Iaungoikoak dituela graziak, alaber Meza enzuten duenak eman bear dizkio graziak Iaunari, kuidado iduki duenas denbora guzietan erakusteas, zer egin bear dugun aren zeruizuan enpleazeko, eta zeruko gloria erdesteko.

## BORZGARREN KAPITULOA

### Zer egin bear duen Meza enzuten duenak Ebanjeliotik asi eta prefazioraño

Solemnidade andiareki erraten da Ebanjelio sandua zeñetan baitaude Iesu Kristo gure Iaunak munduan zebillenean erran zituen, itzak, eta argatik dute fuerza geiago, eta dirade poderosoago guri erakusteko zer bear dugun sinestatu, eta egin, eta onetako biotzaren afizionazeko gogotik obratan ezar dizagun, zeren guziak dirade bizia ematen dutenak, gu aprobetxa bagaites bear den bezala. Eliza sanduak guri adizera emateagatik zenbat debozioreki, eta erreberenziareki, eta zer biotzeko garuitarzunareki bear duen Sazerdoteak erran, eta hiruak enzun, eskazen dio Iaungoik[o]ari garuitasuna erraten dituela, itzak debozio anditakoak, baia hau uzten dugula Meza erran bear duenarendako, Ebanjelio sandua enzuten duenak, egin bear du kontu enzuten duela Iesu Kristo gure Iauna bera, eta Iaunonek beronek predikazen digula, eta ematen dizkigula, berriak ain ditxosoak eta onak, eta guretako ain probetxosoak, zeren Ebanjelio sanduan ematen zaigu adizera, nola Trinitatea Aita eta Semea, eta Espiritu sandua diraden irur persona, eta irur persona ohek Iaungoiko bat egiaskoa, eta eztela berzerik, eta adizera ematen zaigu nola Iesu Kristo den Iaungoiko, eta gizon eta nola dagon aldareko Sakramentuan presente bere personas Iaungoiko, eta gizon ematen zaiskigu berrian, ain konsuelo anditakoak bekatiarendako, baita nola Iaungoikoak barkazen dizkieten beren bekatuak, eta arzen dituela bere adiskidetasunean, ematen diotela bere grazia, justoen eta onendako dela premia guzis andia zeruko gloria, preso eta kautibo daudenendako, dela libertadea, illendako, erresusztatuko diradela, azkenean edozein nezesidade dutenendako prometazen zaio te remedio, eta berriohet ematen dizkiguna da Iaungoikoaren semea gizon egin zena Kristo gure Iauna, emendik atrazen da zenbat debozioreki, eta erreberenziareki, eta biotzeko garuitazunareki bear den enzun Ebanjelio sandua hau guri adizera emateagatik, lenbizikorik Ebanjelioa erraten duenak erraten du, *Dominus vobiscum*, Iauna da zueki abisazen dituela Meza enzuten duteneki dagola munduaren salbazallea, zeñek



Maistruak bezala erraten dizkiotela munduan, ibildu zenean predikatu, eta erran zituen gauzak berak, eta deseoareki berareki aprobeitza ditezen bere Ebanjelioan erakusten duen dotrinan zein baita Kristo gure Iaunarena gurutzean ill zenarena guri bizia beñere akabatuko eztena emateagatik, eta dakigun hau herdestea dagola Iaunau imitazean honrazen garadela egiteas, hark egin zuenas, eta bere Ebanjelioan erakusten diguna obratan ezarzeas, argatik leenik egiten du Meza erraten duenak gurutzearen seña-lea libruaren gañean, eta gero bekokian konfesazean duela Kristioaren honrarik prinzipalena dela Kristo gure Iaunaren imitazea egiten duela Iaunonek bere Ebanjelioan erakusten diguna, eta Ebanjelioko dotrina, eta legea idukiko duela bere begien gañean, eta harzas preziatuko dela nola egin baizuten Apostuluek trabajuak pasazen zituztenean, eta injuriak, eta afrontuak errebeitzen zituztenean ziaze kontentureki, eta alegiareki, plazer arzen zutela zeren baiziakiten artan beren Maistrua, eta Iauna zeruizazzen, eta agradazen zutela, da gauza ziertoa eze egitea Iesu Kristok bere Ebanjelio sanduan manazen, eta akonsejazen duena, eztela honraren kontra aitzetik honraren da guzis geiago, eta ala emendik atrazen da nola egiten duten gaizki uste dutenek galzen dutela beren honratik baldin mendeka ezpadaitez agrabio bat egin, edo injuria bat erran dionaganik, eta egiten baitute berze honlako gauzarik asko demonio gezurtiak inbentaturikakoak, honlakoek dakitela ziertokiro eze izanagatik munduonetan Prinzipa juizioko egunean non agertuko baita guzien aurrean zein den nobleza, eta honra egiaskoa, izanen direla menospreziatuak demonioheki batean, zeñen legeak kunplitu baitituste nola erran baizuen Kristo gure Iaunak, san Lukasek dion bezala, alke duenak konfesazeas ene Aitaren aurrean erran nai baitu alke duenak egitera, nik neure Ebanjelioan manazen dudana, iruditurik andik galzen duela honra, ni alketuko naiz konfesazeas neure Aitaren aurrean.

Bigarren gurutzearen seña-lea egiten du agoan, zeñetan adizera ematen zaigu eze Ebanjelioan erakusten zaigun dotrina bear dugula agoas konfesatu konbeni denean bear bada onengatik gogotik bizia eman here.

Irurgarren gurutzearen seña-lea egiten du bularretan zeñetan adizera ematen zaigu eze Ebanjelio sanduan manazen zaiguna bear dugula ezarri biotzaren erdian, eta iduki memorian obratan ezarzeko, argatik enzuten da Ebanjelioa jaikirik onetan adizera ematen dugula, gaudela prestik, eta aparejaturik kunplizeko, eta egiteko han manazen zaiguna, eta onen konforme eginen ditugula geuren pausuak, eta Sazerdoteak Ebanjelioa erranes akabatu, eta bereala arzen du librua bi eskues, eta gurutzearen seña-lea egin zuen lekuan apazen dio, adizera emateagatik Ebanjelioko dotrina

bear dugula borondate andiareki, eta gogotik artu ezarzen dugula biotzaren erdian obratan ezarzeko, Ebanjelioan zerdion adizen eztenak latinik, ez jakin faltas otoitz eginbrazo Iesu Kristori alas eta han enzuten duen dotrina denean aren Majestadearena minza dakion biotzera erakusten diola maistrua den bezala, eta adizera eman drazon aren honrako, eta zeruizazeko konbeni den guzia, eta eman drazon fabore obratan ezarzeko onetako arzen duela sines proposito, eta intenzio egiteko, eta kunplizeko Iaun onek bere mandamentuetan manazen duena, eta Kristioaren obligazioeki bere bizize maneraren konforme kunplizeko alas eta guziak dutenean obligazio gauza ohek jakiteko, eta obratan ezarzeko, eta hau obekiago egiteko beuka dese andia al dagien guzian enzuteko Iaungoikoaren itza predikazalrek predikazen dutena bai, eta apez edo Bikario, edo yolako maneras arimes kargu dutenek arrazio da daukaten kuido, igande eta jaietan erakustean, eta adizera emateas bere karguko dituen jendei Ebanjelioan dion dotrina, nola baitio Konzilio Tridentinoak, eta sinodoak lenbiziko libruan, eta irurgarren kapituloan ordenazen duen bezala.

Ebanjelioa akabatu, eta respondazen du hiriak; *Laus tibi Christe*, alabazen duela Kristo gure Iauna Ebanjelioan ematen dizkigun berri onengatik, eta han erakusten digun dotrinagatik, eta ala Meza enzuten duenak bear du Iesu Kristo alabatu, eta eman graziak zeren etorri naizandu baizuen zerutik lurrera guri erakustera bide ziertoa, eta seguroa erdesteko zeruko bienabenturanza, eta zeren kriatu baikaitu denbora ain ditxoso onetan zeñetan enzuten baitugu anbat profetek, eta Erregek ain denbora luzean deseaturikako itzak, eta ezpaizituzten enzun.

Ebanjelioa akabatu, eta dela seña-le sinestazen dugula an erraten zaiguna. Meza erraten duenak, erraten du Kredoa, horduan da ongi Meza enzuten duenak konfesadezan fedesko misterioak erraten duela bere biotzearan, nik sinestazen dut zu ene Iaungoikoa zaradela, Aita, eta Semea, eta Espiritu sandua, irur persona, eta Iaungoiko egiasko bat solamente eta eztela berzerik, sinestatzen dut zu zaradela gauza guzien kriazallea, salbazallea, gloria emanzallea, sinestatzen dut zu Iesu Kristo zaradela Iaungoikoa, eta gizona, eta zure gorpuza Espiritu sanduak formatu zuela Birjina Andredona Mariaren sabelean, eta zure arima kriatu, eta gorpuzareki juntatu, eta zuk Iaungoikoaren Semea zeureki gorpuza, eta arima juntatu, eta ala leen Iaungoiko baizik etzinadana geros zaradela gizon here. Sinestatzen dut jaio zinadela Birjina Mariaren baitatik, hura geldizen zela Birjinik erdi baño len, erdizean, eta erdis gero, pasatu, eta sufritu zinduela pasio doloreskoa, eta gurutze batean il izandu zinala gure salbazeagatik, eta jaitzi zinala ifernuetara, eta andik atra zinduela arima sanduenak. Sinestatzen



dut irugarren egunean iletarik erresuzitatu zinala, eta gero zeruetara igan zinala, eta zaudela jarririk zeure Aitaren eskuian, eta andik etorriko zaredela ilen, eta bizien juzgazera, onei emanen diotezula zeruko gloria zeren begiratu baitituzte zure mandamentuak, eta gaistoei ifernuko penak, zeren ezpaituzte begiratu zure mandamentuak, gauza ohek, eta Eliza ama sanduak sinestazen dituen gauza guziak sinestazen ditut zeren baitirade egia zuk erakutsi dituzunak, eta adizera eman zeure Elizari ala diradela egia, zeren dakit ziertokiro, zuk Iauna ezin erakutsi dezakezula gauza falsorik, eta ala eztenik, eta alaber ez Eliza ama sanduak, zeren ezin zu Iauna engaña zaitzeko, eta ez Eliza fedesko gauzetan, zeren ezin yorhere engaña dezakezu, alas eta zu zaradenean Maistrua egiaskoa, eta berdaderoa fedesko gauzak erakusten dituzuna, eta ala diot, eta sinestatzen dut diradela egiaq alas eta zuk, eta zure Elizak erakusten, eta erraten didazunean ala diradela. Fedea manera onetan konfesazea da gauza bat guzis Iaungoikoari agradazen zaiona, eta egiten duenaren dako probetxu anditakoa.

Kredoa erran, eta ofrezizen du Sazerdoteak ofrenda zeren fedeak erakusten digu, eze erdesteko zeruko gloria fedearerki batean egin bear ditugula obra onak, zeren fedea illa da obras erakusten eztena.

Eskritura sagratuak kontazen du, eze sandu Patriarka Abrahamek emanika sineste Iaungoikoari, egin zuela obra bat ain andia nola seme bat izan eta hura ofrezizea, aren dibina Majestadeari, ala bada jakinika Elizak fedea zinestatzen dutenek bear dutela obras erakutsi Kredoa akabatu, eta Sazerdoteak ofrezizen dio Iaungoikoari duena baita ogia, eta ardoa andik fite izul drazon obeturik, eta medraturik, eta ain medratua izanen da eze ofrenda pobrearen lekuan emanen baitio Kristo gure Iaunak, bere gorpuza, eta odola, da Iaungoikoaren kondizioa gureganik errezebizen duena errezebizen baitu guri gauza obeagoak emateko, eta ala medra gaitezen.

Denbora onetan, da ongi Meza enzuten dutenek ofreziz drazoten Iaungoikoari zerbait, nola baitio Doktor Nabarrok, de la kostunbre ona, eta alabazekoa, herriarena zeñetan Mezakoan ofrezizen baitituzte ofrendak, olatak, argizagiak, eta berze honlako gauzak. Eskritura sanduak dio, nola Tobias zarrak Iaungoikoaren zeruizariak bere semeari eman zion konseju ezarri zezala ogia, eta ardoa, justoaren obiaren gañean sazerdotek zeñek aprobetxazen baitituzte otoiz egin dezaten Purgatorian dauden arimengatik, eta ofrezizen dituztenengatik, zeren tenploan ofrezizen diraden gauzak ilen eta biziendako aprobetxazen dirade, eta ala bear dirade ofratu liberalkiro, eta prinzipalkiro Iaungoikoari agradezagatik zeñek ain liberalkiro ematen baitigu bizia, osasuna, hazienda, eta dugun ondasun

guzia. Honla ofrezizen dituenak, da gauza ziertoa, eze eztuela aren haziendak gutiago balioko, aitzetik Iaun onek medratuko dio. Aita sandu Gregorio zazpigarrenak determinatu zuen Kristioak bear duela prokuratu tenploan zerbait ofrezizera zeren Iaungoikoak dauka Exodoan erranik ezatorrela ene aurrera, deus bage, eta san Agustinek dio, eze emanai ezituenak ofrendak, ilen arimen faboretan ofrazen diradenak dela exkomekatu.

Meza enzuten duenak denbora onetan prinzipalkiro egin bear duena, da ofratu bera Iaungoikoari bere biotza, eta potenziak erraten duela Iauna, Meza erraten duenak aldarean duena ofrezizen drauzunareki batean baita ogia, eta ardoa deseoreki medraturik demozkiozun, eta ala ogiaren lekuan ematen diozu Kristo gure Iaunaren gorpuza, eta ardoaren lekuan aren odola, ala nik ofrezizen drauzut neure biotza, memoria, entendamentua, eta borondatea, neure begiak, mia, eta berze sentidoak potenziak, neure pensamentuak, itzak, eta obrak guziak deseoreki ones aurrera guziak geldi ditezen medraturik, alako maneras eze nik pensa dezadan Iesu Kristok nai duen gauzetan, eta nai dudan nik, hark nai duena, eta ez berzerik, ene begiek, ikus dezaten hark nai duena, alaber ene bearriek enzun hark nai duena, eta, ene mia minza dedin Aita eternoa nai duen bezala alako maneras eze, ez nadin bizi ni neure baitan, erran nai dut neure inklinazioak eta, apetitu gaistohek nai duten bezala, baizik Iesu Kristo bizi dedin ene baitan, aren baitan pensazen dudala eta, gauza guzietan borondate ones, eta gogotik egiten dudala Iaun onek nai duena. Hau egiten dela sines deseoreki medraturik geldizeko da ofrenda ona, eta guzis aniz Iaungoikoari agradazen zaiona.

Ogia, eta ardoa Meza erraten duenak ofratu, eta garuizen ditu heri puntak ures, eta gero guzien partes ofrezizen du ofrenda Trinitate sanduari, eta izulzen da Meza enzuten dutenetara erraten duela, *Orate fratres*, eskazen duela guziek otoitz egin dezaten errezebi dezan Iaungoikoak, hark, eta aihek ofrezizen diotena, horduan Meza enzuten duenak otoitz egin bear du Iaungoikoari errezebi dezan sakrifizio hura aren dibina Majestadeak gloria duken bezala, eta Meza enzuten dutenek, eta berze Kristio filek probetxu duketen bezala, eta orazionetan gasta dezake denbora hura zeñetan Sazerdoteak erraten baititu orazio bazuk sekretuan guziengatik.



## SEIGARREN KAPITULOA

### Zer egin bear duen Meza enzuten duenak Prefaziotik asi, eta Konsagrazioa

Orai erran diraden orazioak erran, eta Sazerdoteak asizen du Prefazioa zeñetan adizera ematen baizaigu, nola Iesu Kristo munduaren salbazalea Erramu egunean sartu zen Ierusalenen guregatik, an anbat trabaju pasazeko, eta pasioa, eta heriotzea ain dolore anditakoa, eta hau kontsidera dezagun eskuak altxazen dituela gora erraten du, *Sursum corda*, adizera ematen draugula fite, idukiko duela bere eskuetan guregatik anbat trabaju pasatu zuen Iauna, eta ala dela arrazio dauzkigun gure biotzak altxaturik lurretik pensazen dugula, eta oroizen garadela nola datorren aldarera gure amorekatik munduaren salbazalea, zerutik, gu zeruko ondasunes betezera. Eta ala denbora onetan dela arrazio berze munduonetako gauzak utzirik daukagun geuren pensamentua Iaunonen baitan. Respondazen dute Mezan daudenek, *Habemus ad Dominum*, ala dauzkigu, kontsidera bezate hau erraten duten sines, ala ez, zeren gauza gaizki lizatena, eta alke lizana lizate denbora onetan ala erran, eta biotza idukizea lurreko gauzetan, eta Iaun oni agradazen etzaizkionetan. Kontsidera zazu Errege bat datorrenean ziudade batera, zenbat jende atrazen den aren ikustera, aren baitan dauzkitela beren pensamentuak, eta deseo dutenareki ikusteko, erraten dute hara non datorren gure Erregea: bada arrazio geiago da Kristioak denbora onetan dauzkiten beren pensamentuak zeruko Erregea baitan zein baitator zerutik gure amoregatik, eta gure onetan Aldarera, anbat Aingeruek akonpañazen, adorazen, eta alabazen dutela.

Bereala Meza erralleak abisazen ditu guziek graziak eman drazkioten Iaunari arenganik errezebizen ditugun ondasunengatik. Horduan respondazen diote arrazio, eta justo da, eta bereala hark elizako ministroak bezala guzien partes asizen da graziak ematen, eta erraten duela, *Dignum & iustum est*, justo, eta arrazio da, eta probetxu andiak dakazkiena beti, eta non nai, denbora guzietan, eta leku guzietan graziak eman drazkiogun, nola egiten baitute Aingeruek. Eta aieki batean erraten du, *Sanctus, sanctus, sanctus, Dominus Deus Sabahot*. Ala egin bear dute Meza enzuten dutenek, erra-

ten dutela, Sandua, sandua, sandua zarade, Iau[n]goikoa berdaderoa Aita, eta Semea, Eta Espiritu sandua bedekatua da Iaunaren, izenean datorrena. Hitz ohek erran bear dirade oroizen dela nola Kristo gure Iaunak nai duen etorri zerutik Aldarera Sakramentu sandura: nai duten guziek ofreziz dezaten bere Aita eternoari graziak ematen dizkiotela bere etorzeagatik, eta otoitz egin, eman drazkiogun bere bizia, eta heriotzean merejitu zizkiogun ondasunak, eta digun graziak geuren partetik aparejazeko anbat ondasun errezebizeko.

Meza erraten duena asizen denean erraten, *Te igitur dementissime Pater*: Otoitz egiten diola Aita eternoari urrikariosoa den bezala, errezebi dezan sakrifizioa guzien partes ofrezitu nai duena Kristio fielen aldetik den bezanbates guziei aprobetxa dakioketen bezala: eta gero egoten baita sekretuan otoitz egiten diola Iaungoik[o]ari biziengatik: denbora onetan Meza enzuten duenak bear du bere partetik Sazerdoteareki batean ofrezitu sakrifizioa: baita hau ongi egiteko jakin bear da lenbizikorik eze Meza erralleak Elizaren izenean ofrezizen duela Mezako sakrifizioa Kristio fiel bizi diranengatik, eta purgatorioan dauden arimen faboretan, eta Meza erraten duenareki batean ofrezizen dute sakrifizio hura bera Meza enzuten duten guziek. Bigarren jakin bear dena da zer intenzioreki bear den ofratu; irurgarrena nola bear den ofratu intenzios den bezanbates, eramo bear du Kristo gure Iaunak Orzillare Sanduan Gurutze Sanduan ofrezitu zenean eramo zuena, izandu baizen bere Aita eternoari kontentu emateagatik, zioaienean bada Gurutzean ofrezizera, zio, bere biotzean, ni ofrezizen naiz zuri kontentu emateagatik, eta ene heriotzetik ezpalidi atra berze probetxurik baizik zuri kontentu ematea, eta zure borondatea egitea: manera onetan berean ofrezituko ninza orai ofrezizen naizen bezala.

Bigarren intenzio Kristo gure Iaunak eramo zuena joan zenean Kalbarioko oianera mundu guziagatik ofrezizera, izandu zen graziak emateagatik bere Aita eternoari, guziei, egiten dizkioten ondasunes: zeñen baitatik, iturri batetik bezala baitatoz guziak ala Aingeruei nola gizonei, eta kreatura guziei egiten dizkiotenak, eta jakinika gure guzien baitan, eta Aingeruetan ezte la kaudalerik konbeni ziraden graziak Iaunoni emateko, nai zituen gure faltak kunplitu. Eta ala guziengatik eman, eta guzien partes alabatu, eta ala zio bere biotzean Iesu Kristok. Ene Aita eternoa nik ofrezizen drauzut sakrifizio hau guziei egin dizkiotezun, eta eginen dizkiotezun ondasun, eta mertxedengatik, eta guzien partes alabazen zaitut. Argatik deizen da sakrifizio hau alabanzasko sakrifizioa.

Irurgarren intenzioa gure Iaunak eramo zuena gurutzean ofrezizera joan zenean, izandu zen guk gure bekatuengatik zor ginduen zor guzias



bere Aita pagazeagatik, eta aren medios guziak barka zizan, eta ala zio, gurutzer a zioaienean ofrezizera bere biotzean: ene Aita eternoa nik ofrezizen drauzkikut neure trabaju guziak, neure odola, baitakizu zenbat balio duen, eta neure bizia, ene amoreagatik barka drazkiotezun bekatariei, beren bekatuak, eta aiengatik zor kaituzten zor guzies paga zaitezen, eta hau izandu zela Iaun onen intenzioa, beronek adizera eman zigu, erraten zuela, kaliza konsagratu zuenean, hauda ene kaliza, ene odolarena, ixuriko baita zuengatik, eta aunizengatik, zeren onen medios ene Aita urrikaritu baita bekataries, eta barkatu baitizkiote beren bekatu guziak.

Laugarren intenzioa Kristo gure Iaunak eramo zuena joan zenean gurutzean ofrezizera, izandu zen guri merejizeagatik Espiritu sandua zeñen faborea, eta grazia bage ezin yolako maneras erdesi baitezakegu gloriako bizize sekulakoa, beñere akabatuko eztena, eta Iaun onek izandu zuela intenzio hau, berak erran izandu zioten bere Apostuloei, konbeni da, ni noaien neure Aitarengana, da erratea, konbeni da ni il nadin, zeren ni ezpanoie neure Aitagana, ezta etorriko Espiritu sandua zuengana, baia ni banoaie, nik igorriko drauzuet.

Laur gauza ohek eramo bear dituzte Kristio fielek Mezan ofrezizen den sakrifizioa ofrazen dutenean, lenbiziko deseo andi bat Iaungoikoa agradazeko gauza batean zeñes anbat kontentu errezebizen baitu nola Mezan ofrezizen den sakrifizioa ofrezizeas baita bere seme onerizaren gorpuza, eta odola zein geiago agradazen baizaio, ez es berze gauza guziak.

Bigarren intenzioa eramo bear dena da Iaungoikoari graziak ematea berak, eta berzeak arenganik errezebitu dituzten ondasunengatik.

Irugarren intenzioa eramo bear duena da, ofrezizea Mezan ofrezizen den sakrifizioa bere, eta berzen bekatuengatik, aren medios barka drazkioten.

Laugarren intenzioa da Iesu Kristoren medios eman drazoten Espiritu sanduaren grazia, eta libra dizan Iaungoikoak gaiz guzietarik pasatuetatik, eta presentean diradenetarik, eta etorzeko daudenetarik, eta eman drazkioten gauza aiek guziak aren honrako, eta zeruizuko diradenak, eta beren onetan, eta berze proximo lagunendako, bizi diradenen, eta purgatori[an] dauden arimendako.

Alaber Meza enzuten duenak egin bear du kontu nola ala baita egia, eze Mezan ofrezizen den sakrifizioa, dela Meza enzuten duenarena, alas eta Iaungoikoak ematen dionean bere merejitu zituen tesoro, eta ondasun guzieki, zeren beretako etzituen bear. Eta ala Elizak kantazen du guregatik jaio zela, eta guretako, eta gure ondasuna, eta probetxuagatik eman

zizaigula Iesu Kristo munduaren salbazallea. Bada gauza ziertoa da, ain dela gurea grazias ematen zaigun gauza nola guk geuren trabajus erdesten duguna, ala bada Meza enzuten duenak bear du bere baitan konsideratu, eta pensatu, Iesu Kristo zein ofrezizen baitut da enea, eneak dirade munduan ibildu zenean egin zituen pausu guziak, sufritu zituen afrontuak, eta injuriak: enea da odola ixuri zuen guzia, eneak dirade doloreak, eta trabajuak Gurutzean itzees atrabesaturik zegonean sufritu zituenak, eta bere bizian, eta eriotzean egin, eta pasatu zituen trabajuak: zein abaratzik dagon Meza enzuten duena, baldin aprobetxazen badaki. Hau onla konsiderazea auniz inportazen da, esperanza, eta konfianza andiarekin eskazeko Iaungoikoari mertxede andiak ala animaren, nola gorpuzarendako: zeren gauza ohok baiño, geiago balio baitu ofrezizen dion sakrifizioak. Gauza ohek onla konsideraturik Meza enzuten duenak bear du ofratu sakrifizioa, manera **enetan**, sazerdoteareki batean.

Iaungoiko egiaskoa, sakrifizio sandua Meza erralleak ofrezizen drauzuna, baita Iesu Kristo gure Iaunaren gorpuza eta aren odol sandua: nik neure partetik areki batean ofrezizen drauzut merejitu dizkigun ondasun guzieki, konfesazen dudala zu zaradela Iaungoiko berdaderoa, guzien Iauna, eta guziei ondasun egillea. Lenbizikorik ofrezizen drauzut zuri kontentu emateagatik, eta gero graziak emateagatik Iesu Kristori egin zindizkiozun mertxedengatik, eta orai zeruan egiten dizkiozunengatik, eta zeren gure amoreagatik igorri baizinduen mundura gizon egin zedin: graziak ematen drauzkizut aren gizon egiteagatik, eta Iaiozeagatik Birjina Mariaren baitarik: bere bizian egin zituen ondasunengatik, zeren ordenatu baizuen Sakramentu, eta sakrifizioau, eta berze sakramentuak, pasio, eta heriotze doloreskoa, guziengatik pasatu zuenagatik, aren irur garren egunean illetarik resuzitazeagatik, eta espiritu sandua Apostoluetara etorzeagatik: Alaber ofrezizen drauzut Andre dona Maria birjinari aren amari egin dizkiozunengatik, eta orai zeruan egiten dizkiozunengatik, eta ene Aingeru begirazen nauhenari, eta berze Aingeruei egin dizkiotezunengatik, eta ene Sandu izenkideari, eta berze Sandu eta Sanda guziei, ete niri egin dizkidazunengatik, zeren kriatu baininduzu zeure irudira, eta zeren konserbatu bainauzu anbat denboras, eta orai presenteonetan, eta zeren kriatu bainauzu kristioen artean, eta egin kristioa, eta berze ondasun egin dizkidazun guziengatik, eta ene gurasoei, aidei, adiskidei, eta ondasun egilei, eta guziei egin dizkiotezunengatik. Ofrezizen drauzut Iesu Kristo gure salbazallea, hark dizkizun ene, eta gozien partes, eta guziengatik alaba zaizan. Dakiel a ziertokiro Meza enzute duenak, eze onetan gastazen duen denbora dela ongi enpleatua: zeren hauda denbora propioa graziak Iaun-



goikori emateko, eta auniz agradazen zaiona, zeren ofrezizen baitiogu Iesu Kristo, balio baitu ondasun errezebizen ditugunak baiño geiago: argatik deizen da sakrifizioau graziak ematekoa.

Alaber ofrezizen drauzut launa sakrifizioau onen medios urrikari zakizkidan, eta barka drazkidazun neure bekatu guziak, eta aiengatik zor zaitudan zorrak paga zaitezen: onetako ofrezizen drauskizut Iesu Kristoren barurak, pausuak munduonetan zebillenean egin zituenak anbat aldiz enoiaturik, aren orazioak, trabajuak, eta doloreak, bere pasioan pasatu, eta sufritu zituenak, oñetan, eta eskuetan, enegatik errezebitu zituen zauriak, odol guzia enegatik ixuri zuena, eta heriozea enegatik pasatu zuena; ohek guziok dirade eneak, eta ala ofrazen drauzkizut. Badakit launa auniz zor zaitudala, zeren egin baitut bekatu auniz, eta andiak, eta ala konfesazen dut zorra dela andia: dut damu neure biotzean, neure falta egines, zeren baitira zure kontra. Daukat propositu, eta intenzio, ez geiagorik zure kontra bekatu egiteko, yolako maneras: bada launa paga zaitez Iesu Kristoren merejimentuetan, eze da kaudale, eta hazienda ene bekatu, eta mundu guziko bekatuengatik zor zaradenean pagazeko, eta sobrazen da geiago, eta geiago. Hau erraten dela fede andiareki, eta humildadereki, eta laungoikoari graziak ematen dizkiola, sentituko du bere baitan konsuelo andia, eta animatuko da, esperanza andiareki eskazera mertxede andiak, erraten duela. Alaber ofrezizen drauzut Aita eternoa sakrifizioau onen medios didazun geien bear dudana, baita Espiritu sanduaren grazia, eta aren doaiek bizizeko, zuk nai duzun bezala, indazu fedea, esperanza, eta karidadea, eta berze birtuteak, eta ondasunak, zuri agradazen zaizkizun guziak: indazu launa fabore, eta grazia neure bizian, eta heriotzean, beti zuk nai duzun bezala bizizeko, eta ilzeko, eta neure arimaren, etsaien, munduaren, aragiaren, eta demonioaren kontra beti bitoriareki atrazeko. Indazu alaber launa osasuna, hazienda, eta kontentu, eta munduonetako berze ondasunak zure honrako, eta serbizuko, eta ene arimaren onetan diradenean.

Alaber otoiz egiten drauzut, urrikari zaitezen zeure Elizas, Kristio fieles, zeinen burua baita Aita Sandua, zeinek gobernazen baititu, konserba dezazun, eta barraia dedin mundu guzian, eta libra dezazun gaiz guzietarik. Eta Aita Sanduari emozu fabore eta grazia, ongi Eliza gobernazeko, eta bere ofizioa ongi egiteko: eta alaber berze aren manuaren azpian dauden Perladoei, eta edozeini, baitu kargu, eta kuido arimen salbazioas, azerta dezaten nork bere aurkinzean, kargua, eta obligazioa duten bezala ongi egiteko.

Alaber otoiz egiten drauzut gure Erregerengatik den zure zeruizaria egin dezan zure gogara, eta zeruiza zanizan ongi, eta governa dizan bere erreinuak ongi. Alaber berze Prinzipe Kristio diraden guziek: eta den aihen artean bakea, eta konkordia, zuk nai duzuna baita egiaskoa: eta eman drazotezun bitoria Elizako etsaien kontra.

Alaber otoiz egiten drauzut Iuezen, eta Republika gobernazen dute-nek egin dezaten justizia ongi, arrazioaren konforme ofizioa, eta kargu duten bezala.

Alaber ofrezizen drauzut ene Aita, eta Amagatik, Aiden, Adiskiden, eta ondasun egillengatik, barka drazkiotezun beren bekatuak, eta egin dizazun zeure zeruizariak hondasun guzian medrazen dituzula, eta zure borondatea denean dramazkizun gloriara.

Alaber otoiz egiten drauzut, iduki dezazun miserikordia, eta urrikari zaitezen bekatu mortalean daudenes, ekar itzazu ezagumentura zein peli-gro andian dauden ifernura juateko: eta egin dezaten penitentzia, aparta-zen diradela bekatuetatik, eta zeruiza zaizaten.

Alaber urrikari zaites, federik eztutenes, eta herejes, eman drazotezu argitasuna, ezagun dizaten gure fedesko misterioak, eta ezagun dezaten nola doazen engañaturik, eta ala konberti ditezen gure legera: eta sinesta dezaten Eliza sandu Erromakoak sinestazten duen fede egiaskoa, eta berdaderoa, eta egin dezaten penitentzia beren bekatues, eta ala salba ditezen. Gauza ehk guziok otoiz egiten drauzut diskiguzun Iesu Kristo zure Seme bakoizaren, eta gure Salbazallearen, eta laungoikoaren amorea **katik**, zein ofrezizen baitrauzut, zeinek otoiz egiten baitrauzu ene partes: badakit launa beti enzuten duzula bere oitizetan denarengatik, eta merejidenegatik, eta ala daukat esperanza zure miserikordian, eta ondasunean nik ez merejiagatik, ofrezizen dizudan launaren medios emanen didazula eskazen dizudan guzia. Gauza ohek, eta berze konbeni zaion guzia bear du eskatu Mezan, fede, eta esperanza andiareki, zeren baita denbora guzietatik oberena laungoikoareki negoziatzeko ofrezizen zaion sakrifizioaren medios.

Kontazen du eskritura sagratuak, nola Patriarka Abrahamek borondate solla idukitu zuenagatik ofrezizeko sakrifizioan bere semea laungoikoaren borondateareki kunplizeagatik egin ziola anbat ofrezimentu juramentureki, prometazen ziola eginen ziola ari, eta aren ondorekoei guziz mertxede andia. Bada zer eskatuko diogu laungoikoari ofrazen diogunean ofrenda bat ain ona, eta anbat balio duena, eta anbat agradazen zaiona nola baita Iesu Kristoren gorpuza, eta odola, alas eta laun onek beronek guregatik otoiz egiten dionean bere Aitari aren amorekatik eman draza-





gun eskazen dioguna, ezpaitigu emanen; arrazioreki erran dezakegu San Pablok diona, bere Semea ematen drauganak nola hukatuko digu eskazen dioguna?

Sakrifizioau manera onetan ofrezizea Meza enzuten duenak egin dezake sazerdoteak eskuak juntaturik egoten denean otoitz egiten duela bizi diraden kristioengatik, arik eta Hostia konsagratu arteraño.

## ZASPIGARREN KAPITULOA

### **Zer egin bear duen Meza enzuten duenak Hostia, eta Kaliza konsagratu, eta arik eta Meza erraten duenak Iesu Kristoren gorpuza eta odola errezebitu arteraño**

Sazerdoteak nola konsagratu gero Hostia, eta Kalizan zegon ardoa baitauka bere eskuetan Iesu Kristo munduaren salbazallea, goitzen du gora ala Hostia, nola Kaliza, zeren Meza enzuten dutenek, ikusi eta adora dezaten eta alabatu, denbora onetan asi eta arik eta Meza erraten duenak errezebitu arteraño Iesu Kristoren gorpuza eta odola. Meza enzuten duenak bear du Iaunau adoratu, eta alabatu, eta obratan ezarri Fedea, Esperanza, eta Karidadea, eta eskatu konbeni zaion guzia salbazeko. Meza erraten duenak altxazen duenean Hostia konsagratua eta kaliza, Meza enzuten duenak bear du oroitu, eta konsideratu, nola Iesu Kristo Hostia artan, eta Kalizan dagona Horzillare Sanduan oñetan eta eskuetan Gurutzean itzees josi, eta altxatu zuten gora Kalbarioko oianean non ixuri baitzuen bere odola, gure salbazeagatik, onezas oroiturik bear du Iaunau adoratu, eta obratan ezarri, fedea, Esperanza, eta karidadea. Baia hau egin dedin bear den bezala bear da jakin, eze egiten dutela gaizki Sazerdoteak arzen duen bezala Hostia konsagrazeko, eta bereala eskuak altxazen dituztenek gora, eta asizen dirade eskues bularretan golpeak ematen, irudirik han dagola Iesu Kristo. Eztituzte gauzaohetik egin bear ain fite, eta arrazioa da, zeren Hostia arik eta sazerdoteak akabatu arteraño konsagrazioko itzak da ogia, eta Kalizan dagona ardoa, eta eztirade adoratu bear, baia Meza erraten duenak akabazen dituen bezala erranes konsagrazioko itzak, Hostia artan ezta ogirik, eta ez Kalizan ardorik, baizik Iesu Kristoren gorpuza, eta odola, eta orduan bear da adoratu. Baia nola Meza enzuten duenak ezpaitaki noiz Sazerdoteak akabazen dituen konsagrazioko itzak iduki bear da kontu, eta jakin eze sazerdoteak konsagrazioko itzak akabatu dituen bezala, nola baitauka Iesu Kristo bere eskuetan Hostia konsagratuan, bereala jarrizen da belauriko, eta txutizen da, eta altxazen du Hostia, horduan bear du Meza enzuten duenak adoratu Hostia konsa-



gratua, eta alaber Kaliza, zeren horduan ezta an ogirik, eta ez ardorik, baik Iesu Kristoren gorpuza, eta odola, eta bear du obratan ezarri fedea, manera onetan erraten duela: nik sinestutzen dut zu zaradela Iesu Kristo Iaungoikoaren Semea, etorri baizarade Sakramentu Sandu onetara, nik adorazen zaitut neure Salbadorea, eta alabazen, eta bedeikazen zaitut, eta graziak ematen drauzkizut, zeren baitakit etorri zaradela deseoreki niri mertxede andiak egitera, eta ondasunes betezera, emen presentazen naiz ni bekatariau gaizki egina bezala zure aur[r]jean, egin dezazun zuk Iauna eneki zaradenak bezala. Oneki batean bear du bereala obratan ezarri esperanza, erraten duela: esperanza daukat Iauna zure baitan, alas eta zure etorzea izandu denean amorio enegana daukazunagatik: urrikarituko zaradela nizas eta usatuko duzula eneki miserikordias, eta barkatuko dizkidazula neure bekatu guziak, auniz, eta andiak izanagatik, zeren andiago baita zure miserikordia, orretan daukat neure konfianza, eta ala eginen duzula eneki zaradenak bezala, eta nik bear dudak bezala.

Alaber bear du obratan ezarri karidadea, erraten duela: zu ene Iaungoikoa, eta salbazallea zeñenganik baitatozkit ondasun guziak, eta eman baizinduen zeure bizia ene amoreagatik, neure biotzas, eta entraña guzias onerizzen zaitut eta onetan neure denboran neure faltas faltatu dudanas dut damu; zeren egin baitut zure kontra, eta zeren ene bekatuak izandu baitirade kausa zu Iauna gaizki trata zinzaten, menos preziatu, eta Gurutzean itzees atrabesatu, zeñetan il nai izandu baizinduen, niri bizia emateagatik: otoi barka drazadazu zaradenagatik, eta aurrera indazu fabore, eta grazia emenda nadin. Daukat intenzio, eta proposito ala egiteko, apartazen naizela zure amoreagatik bekatuetatik, eta aien okasioetatik, eta emendik aurrera nai zaitut onerizi, eta serbizatu arrazio den bezala zure amoriotik beñerere apartatu bage. Eta ala deseazen dut guziek onerizi zaitzen, eta zeruizatu: eta otoitz egiten drauzut Iauna zure odol negatik ixuri zinduenas, borra, eta desegin dezazun demonioak ene kontra daukan eskritura, nik zuri eman bear dizudan kontua juizioan, pensamentues, itzes, eta obres, neure denboran zure kontra egin ditudan faltas, zure aurrean akusazeko: eta aitzina zure faboreareki bizi nadin, zure zeruizuan alakomaneras zure borondateareki beti konformazen naizela, eze ene heriotzeko horduan ezpaituke deuserere ni zertzak akusatu, hau onla egitea, da probetxu anditako gauza, zeren da komekazea espiritualkiro erran nai baitu deseos, eta borondates er[r]zezebizea Iesu Kristo bere entrañetan, fedearen esperanzaren, eta karidadearen medios, eta han onla egiten duela, izanen du parte Sakramentu sanduaren probetxu, eta ondasunetan; nola baitio Santo Thomasek: zeren nola Kristo gure Iauna munduan zebi-

llenean batzutan sendatzen zituen heriak sarzen zela aien etxetan, nola sartu zenean Simonen etxean, zegolarik aren Amagiarraba mineki sendatu zuen, berze bazuetan sendazen zituen herien etxetan sartu bage, nola sendatu baizuen Zenturioaren mutilla ikusirik aren fedea, erraten ziola itzes ohaie egin bedi sinestatu duan bezala, eta ala gelditu zen sendaturik. Ala bada aldareko Sakramentuan dagol[a] gure Iauna, eta salbazallea remedia dizake gure nezesidade guziak sinestutzen dugula, eta daukagula konfianza, Iaun onen baitan, eta onen faboreareki aparejazen garadela, manera bates da, eze komekazen garadenean, errezebizen baitugu Sakramentu sandua[?] sarzen dela gure entrañetan; eta ha[u] da manerarik obereana, eta probetxosoena guretako, baia nola ezpaitut[e] guziek egunoros errezebizen, eta [?] ain maiz nola arrazio ballizate; da be[r]ze manera bat baita deseos errezebizea Iaun hau fedearen medios sinestazen dugula dagola Iesu Kristo gur[e] salbazallea aldareko Sakramentu sanduan, eta daukagula konfianza aren ondasunaren, eta miserikordia andiaren baitan, eta an dagola dela poderoso gure nezesidade guzien erremediazeko, eta oneristen dugula geuren Iauna, eta ondasun egillea den bezala: eta deseazen dugula geuren entrañetan sarzera, eta errezebizera. Hau onla egin dezake Meza enzuten duen horos; eta ala egunoros izanen du parte Sakramentu sanduonen probetxu, eta ondasunetan, eta aprobetxatuko da auniz komekazen garadenean. Sakramentu sanduau ongi errezebizeko.

Orai erran diraden gauza ohek egin, eta bear du Meza enzuten duenak oroitu purgatorioan dauden arimes, eta aiengatik otoitz egin, erraten duela, Iauna otoitz egiten drauzut ene Aitaren, eta Amaren aiden, adiskidena, eta ondasun egillen, eta berze purgatorioan dauden arimak, libra ditzazun purgatorioko pena, eta trabajuetatik Iesu Kristo gure Iaunaren amorekatik, eta dramazkizun gloriako deskansura.

Gero Sazerdoteak erraten duenean: *Pater noster*: Alaber Meza enzuten duenak, erran bez bere baitan sekretuan estorua eztizan berze lagunak, erran bear du debozio, eta erreberenziareki; argatik Kristo gure Iaunak lenbiziko itzak orazio onetan ezarri zituen, Aita gurea, zeruetan zaudena: altxa dezagun geuren pensamentua lurreko gauzetatik, eta oroit gaitezen, eta konsidera dezagun minzazen garadela Iaungoikoareki baita zeruko, eta lurreko Erregea, eta Iauna, zein humildade andiareki erreberenziazen adorazen, eta alabazen baitute zeruan Aingeru sanduek; eta ango gauzak eskazen dizkiogunean dauzkigun han geuren pensamentuak, eta gauza ohek eska drazkiogun konfianza andiareki emanen dizkigula; nai du dei drazogun Aita gurea; zeren edozein ondasun daukake esperanza humeak bere aitaganik erdiesiko duela, eta partikularkiro zeruan dago-



naganik, zeinek geiago deseazen baitu gure ondasuna guk geurek baño. Eta ala geiago deseazen du guri ematea konbeni zaigun guzia guk baino.

Orazio onetan eskazen diraden zazpi gauzetan, sarzen dirade gauza bear ditugun guziak ala arimaren, nola gorpuzarendako. Baia obekiago erdesteko konbeni da orazioau, errandedin adizen duen lenguajejan, berzela eztu jakinen zer eskazen duen: nola Latinik eztakienak erran bales, *Pater noster qui es in caelis*. Eta nola ezpaitu adizen zer erraten duen, ezta egonen anbat debozioreki nola egonen baillizate adizen balu, argatik konbeni da orazioau, eta berzeak erran ditezen adizen duen lengoajejan.

Alaber konbeni da orazionetan eskazen diraden gauzak eska ditezzen sines deseoreki erdesteko onetako bear du itzes eskazen duena, nai borondateas, zeren itzes eskatuagatik baldin ezpadu ala nai, borondateas eztu alakoak, sines eskazen, baizik kunplimentus, eta burlas: nola askok onla eskazen baitu, onlakoek eztute erdestsiko eskazen dutena aitzetik kastigatuko ditu, zeren ez paitute sines eskazen, eta hau ongi adizeko jakin bear da nola.

Lenbiziko, eskazen dioguna, Iaungoiko Aita gureari zeruetan dagonari da, santifika bedi zure izen ori, erran nai dugula onetan, Iauna zarade zu gureganik honratu, eta zeruizatu arrazio den bezala. Nai eztuenak Iaun hau honratu eta zeruizatu, honlakoak eztu eskazen sines baizik kunplimentus, eta burlas.

Bigarrena, eskazen diogu, etorri bedi zure erreinua, erran nai dugula onetan, Iauna alas eta zu zaradenean gure Errege propioa goberna gaitezen zure ordenanzen, eta legen konforme, eta eztela berze ordenanzarik, eta legerik gure baitan. Hau erraten duenak, itzes, eta eztuenean ala egiten dion bezala, baizik gobernazen da demonioak, eta bere apetituek nai duten bezala, onlakoek eztute sines eskazen.

Irur gar[r]ena, eskazen dioguna, da egin bedi zure borondatea zeruan bezala lurrean here hau honla, itzes erran, eta alabaia dago determinaturik Iaun onek bere mandamentuetan manaturik daukanaren kontra egitera, ikusia dago onlakoak eztuela eskazen sines baizik kunplimentus.

Laur garrena, eskazen diogu, geuren egunorosko ogia, eman drazaguzu egun, erran nai dugula onetan Iauna alas, eta zu zaradenean gure Aita eman drazaguzu bear dugun sustentua partikularkiro arimarena baita zure itza, eta dotrina, zure predikazallek predikazen dutena, eta Doktorek erakusten dutena, enzuten ditugula predikuak, eta libru debozioskoak, eta onak, leizen ditugula: eta maiz konfesazen, eta komekazen garadela, baita arimaren sustentu propioa. Gauza ohek egiten eztituenak aitzetik kuida-do gutien duena da gauzahoes, onlakoak eztu sines eskazen.

Borzgarrena, eskazen dioguna da, barka drazkiguzu gure zorrak, guk barkazen dizkiotegun bezala gure zordunei, eskazen diogula onetan barka drazkigun geuren bekatuak, eta dakigun zenbat eskazen diogun onetan. Iakin bear da, eze bekatu mortale bat egiten duenak, arengatik mereji dituela ifernuko penak. Bada ezta geiago zer erran, zenbat balioduen emen eskazen dioguna Iaungoikoari alas eta ezteanean gutiago baizik libra gaizan ifernuko sutik, eta pena, eta trabaju beinerere akabatuko eztiradeneatik. Bada pena, eta trabaju ain andi ohetarik librazen gaitu Iaungoikoak bekatu mortalea barkazen digunean. Alaber eskazen diogu barka drazkigun bekatuengatik zor dugun pena, zein pagatu bear baitugu mundu onetan obra onak eta ondasunak egines, edo purgatorioan. Baia adbertitu bear da, eze erraten diogula guk gure zordunei, barkazen dizkiotegun bezala: onetan konfesazen dugula, guk, barkazen diotegula injuriatu, eta agrabiatu gaituztenei. Hau itzes onla erraten duenak, eta an biotzean barrenean daukanak intenzio, ez barkazeko, aitzetik mendekazeko onlakoak eztu sines eskazen, aitzetik eskazen du bere kontra.

Seigarrena, eskazen diogu, ezkaitzazula utzi tentazioan erortera, otoitz egiten diogula onetan Iauna garade flakoak, eta etsaiak ditugu bortizak; dugu nezesidade zure faborearendako, libra gaitzazu bada bekatu guzietatik, eta aien okasioetatik. Hau onla eskazen duenak itzes, eta alabaia baldin badabil nondik bekatu eginen duen, joaten dela okasio aietara, zeñetan baitaki bekatu eginen duela, honlakoak eztu sines eskazen.

Zazpigarrena, eskazen diogu, libra gaizazu gaitzetik, onetan otoitz egiten diogula libra gaitzan gaiz guzietatik: ala arimarenetatik nola gorpuzarenetik (partikularkiro bekatu pasatuetatik, barkazen dizkigula, eta ematen digula bere faborea, eta grazia, ez geiagorik aietan erorzeko: eta ala libra gaitzan etorzeko dauden gaitzetatik partikularkiro ifernuko penatik, zeren da gauza ziertoa, eze bekatuaren aldean munduonetako gaitzak ezindei ditezkelak gaitzak, zeren da ain gauza gaistoa (partikularkiro bekatu mortalea) eze Aingeruak kriaturikan Iaungoikoak onak, bekatu mortaleak egin zituen gaistoa, anbat eze geros baitirade demonioak, ifernuan daudenak. Alaber, lenbiziko gizona kriaturikan Iaungoikoak ona, bekatuan erori, eta hark egin zuen gaistoa. Bekatua egiten duenak egiten dio agrabio bere kriatu zuen Iaunari, baita gaiz guzietatik gaistoena. Da ain gaistoa, eze andik gu librazea kostazi zaio Kristo gure Iaunari bere bizia, eta egiten duenak kruzifikazen du. Da ain gaistoa bekatu mortalea, eze ilzen baitu egiten duenaren arima; eta alakoa da Iaungoikoaren esaia, eta galzen du bere partetik den bezanbates zeruko gloria, eta artan dagola ilzen dena, geldizen da obligaturik ifernuko suan errezeko, beinerere



remediorik bage. Bada gaitz, ain andionetatik (partikularkiro) eskazen diogu Iaungoikoari libra gaitzan. Bada hau, eta berze gauzak orazio onetan eskazen dizkiogunak, eztirade eskatu bear kunplimentus, eta burlas, baizik sines itzak erraten ditugun bezala, ala nai dugula borondates eze honla eskazen diogula, da gauza ziertoa emanen dizkigula gure Aita miseriordias beterik dagonak: zeren eskazen baitizkiogu Kristo gure Iaunak ordenaturik dauzkien eta, erran zituen gauzak, eta nai duela orai, guk aiek berak eska dizagun. Eta guri obekiago eman drazkigun berak Mezan gure partes eskazen dizkio bere Aitari.

Sazerdoteak erraten duenean, *Agnus Dei qui tollis peccata mundi Misere-re nobis*. Bi aldiz, eta bein *Dona nobis pacem*. Horduan Meza enzuten duenak erran bear du nik sinestazen dut Iesu Kristo ene Iauna, gurutzean ofrezitu zinanean munduko bekatuengatik aplakatu zinduela zeure Aita, eta bakeak egin zinduzela, aren, eta gure artean, eta horduan zinduen kondizioa axuriarena, duzula orai Aldareko Sakramentuan zaudela, baita manso izatea, eta sufrizea, atrebi gaitezen eskazera miseriordia, eta bakea. hau gure gauza guzietan bear dugu galdegin (partikularkiro zu errezebitu bear zaituenak) nola nik deseazen baitut, zu neure entrañetan sarzera: bada Iauna idukazu miseriordia guzas, barkazen, eta genzen dituzula gureganik gure bekatuak, eze honla izanen dugu bakea, anbat konbeni zaiguna gureki.

Meza erralleak erraten duenean: *Domine non sum dignus*. Iauna ez naiz ni digno, alaber Meza enzuten duenak erran bear du komekazeko, erran den bezala deseos erraten duela, Iauna nik nai nuke iduki sanduek duten garuitasuna zure errezebizeko neure entrañetan, baia orai ez naiz trebe, zeren senti baitut neure baitan, eztudala arrazio den garuitasuna, eta aparejua, zure Majestadearen errezebizeko, baia zure faboreareki aparejatuko naiz onlako egunetako, orai kontentazen naiz deseo ematen didazun oneki, eta onetako here ezaguzen dut ez naizela digno, baia konfesazen dut Sakramentu sandu orretan zaudela, zaradela poderoso ene arima onen sendazeko, eta ondasun bear dudan guzia emateko, nola munduan zenbilzanean sendatu baizinduen Zenturioaren mutila, aren etxean sartu bage. Argatik otoitz egiten drauzut ene salbazallea, eta Iauna, daukazun nizas kuido gobernazen naizula zure legearen, eta ordenanzen konformera, defendazen naizula, eta librazen gaitz guzietatik, eta remediazzen naizula neure nezesidade, eta gauza guzietan ematen didazula fabore, eta grazia beti bizian, eta heriotzean kontenta zaitzadan Iauna.

## ZORZIGARREN KAPITULOA

### Zer egin bear duen Meza enzuten duenak Meza erraten duenak Iesu Kristoren gorpuza, eta odola errezebitu, eta azkeneraño

Sazerdoteak azkeneko orazioak erraten dituenean Meza enzuten duenak eskatu bear dio Iaungoikoari, hark eskazen diona, erraten duela Iauna Meza erraten duenak eskazen dizuna nik neure partetik otoitz egiten drauzut eman drazaguzun Iesu Kristo gure Iaunaren medios.

Gero erraten du, *Ite Missa est*, edo *Benedicamus Domino*. Horduan Meza enzuten duenak bear du Iaungoikoa, alabatu, eta egotzen duenean Sazerdoteak bedeizioa erraten duela Iaungoiko, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu sanduaren bedeizioa jaitzi dedila zuengana, eta geldi dedila beti, bear du errezebitu humildadereki, eta kontentureki oroitzen dela Iesu Kristok juizioan egotziko duen bedeizioas onei, aren mandamentuak begiratu dituztenei, eta obra miseriordiasakoak egin dituztenei, eta aren mandamentuak begiratu eztituztenei egotziko dioten maldizioas, eta onesas oroiturik otoitz egin brazo, erraten duela: Iauna bedeizioa Meza erran duenak eman didanau zure izenean geldibedi eneki, eta bizi nadin ni zure zeruizuan, zuk nai duzun bezala alako maneras, eze nik ez merejiagatik dudan parte zuk juizioan zeure eskojituei, eta zeruizariei egotziko diotezunean, ala de la zaradenagatik ene Iauna, eta salbazallea. Eta eztidedila, yorere atra mezatik bedeizioa errezebitu bage: onetan da kostunbre guzis gaistoa auniz lekutan atratzen baitirade Mezatik Sakramentu sandua altxatu, eta bereala, eta berze bazuetan, ez ain fite atragatik, baia bai Sazerdoteak Iesu Kristoren gorpuza, eta odola errezebitu eta bereala, hau klaro da dela gaizki, zeren Eliza Sanduak manazen du guziek enzun dezaten Meza osorik, arik eta bedeizioa egozi arteraino; bai, eta arrazio da, ezтитеzen atra arik eta Iuandone Iuaniseen Ebanjelioa azkenean leizen dena enzun arteraino: zeren onetako nai du Eliza ama sanduak **erran dedin**. Eta ditu probetxu andiak Ebanjelio sanduau enzuteak, edo zein peligro, eta gaitzetatik librazeko, nola gero erranen baita, zeren Ebanjelio sandu



onetan ematen zaigu adizera, nola Iaungoikoaren Semea egin zen gizon guziendako, berria ain ditzosoa, eta probetxosoa, eta munduan zebillenean gure onetan egin zuen ofizioa, izandu baizen argitasuna ematea, eta erakustea guziei zeruko bidea, eta fuerza, eta podore ematea demonioaren, eta berze esaien kontra biktoriareki atrazeko, eta Iaungoikoaren Semeak izateko, aren graziaren medios.

Meza enzuten duenak bear du akaba dedinean Meza, Iaungoikoari graziak eman, ezpada arte guti bates baizik here egin dion mertxedeas zeren egun artan aurkendu baita Mezan, eta artan enzun baititu gure onetan Kristo gure Iaunak bere bizian, eta heriotzean egin zituen obrak, eta misterioak.

## BEDRAZIGARREN KAPITULOA

### Zenbat eta zein andiak diraden Meza ongi enzutetik atrazen diraden probetxuak

Dirade auniz, eta guzis andiak Meza ongi enzuten duenak atrazen dituen probetxuak zeren da gauza ziertoa eze debozio guzietatik konfesazeas, eta komekazeas landara oberena dela Meza ongi enzutea justoen, eta Iaungoikoaren zeruizari diradenendako, dago klaro zeren egia da eze grazian daudenek obra on bat egiten duten horos erdesten dutela grazia leen zuten baino geiago, baia geiago erdesten dute Meza ongi enzuten dutenean, batas zeren berak Mezan ofrezizen baitu sakrifizioa, berzeas Meza erraten duenak ofrezizen baitu arengatik. Alaber Iaungoikoaren grazian dagonak obra on bat egiten duen horos erdesten du barkamentua bere bekatuengatik zor zuena, egiten duen ondasunaren konforme gutiago edo geiago baia geiago erdesten du Meza ongi enzuteagatik nola bereala erranen baita.

Bai, eta bekatariarendako bekatuetatik atrazeko, eta anbat peligro, eta trabaju bekatuen kausas dituenetatik librazeko gauzarik oberena da Meza ongi enzutea, eta arrazioa da, zeren bekatariak bearren duena bekatuetatik atrazeko da Iaungoikoa urrikari dedin arzas usazen duela bere miserikordia andias, eta dakarren urrikimentu, eta damu bear duena bere bekatues izatera, eta ala barka drazkion bekatuak, eta demon bere grazia onetako bada mediorik oberena da Meza ongi enzutea; zeren gauza ziertoa da eze gauza zeñes fiteago, eta geiago Iaungoikoa urrikarizen baita, dela Kristo gure Iaunaren medios, zein ofrezizen baitio Meza enzuten duenak bere merejitu ziskigun ondasun guzieki, guziak baitauzki Aldareko Sakramentuan gure onetan. Eta ala guregatik pasatu zituen trabajuak, eta ixuri zuen odol guzia, daude oius Iaungoikoa urrikari dedin bekatarias, usazen duela miserikordias, eta ala barka drazkion bekatuak, eta hau obekiago egin dezan Iaun hau berau dago otoitz egiten diola bere Aitari Mezakoan, eta ofrezizen diola bere gorpuza, eta odola. Argatik bekataria nai baduzu bekatuetatik atra, eta Iaungoikoak barka drazkizun, eta dizun bere grazia, eta faborea konfesio bat ongi egiteko zoas Meza enzutera, eta ofrezi drazozu an ofrezizen den sakrifizioa, eta eska drazozu damu, eta urrikimentu duzula ar[en] kontra egin dituzun bekatu guzi[e]s: deseoreki,



eta intenzioreki sines emendazeko, bekatuetatik, eta aien okasioetatik apartazen zaradela, eta aurrera aren zeruizuan bizizeko aren borondateareki gauza guzietan konformazen zaradela, Iaun onek nai duena egiten duzula; urrikari dakizun, eta barka drazkizun zeure bekatuak, Iesu Kristoren amorekatik. Hau bear den bezala egiten duzula da gauza ziertoa, barkatu dizkizula zeure bekatu guziak zeren Iesu Kristok zuregatik otoitz egiten dio bere Aitari barka drazkizun, eta ala aren partetik ezta faltarik, zuretik ezpada. Alaber berze Sakramentuak ongi errezebizeko lagunzen da auniz Meza ongi enzutea. Alaber guk bekatuengatik zor dugun penaren Iaungoikoa pagazeko ezta pagurik ain ziertorik, eta segurorik, eta geiago balio duenik nola baita ofrezizea Mezan ofrezizen den sakrifizioa, baita Iesu Kristo, bere obra, eta ondasun guregatik bere bizian, eta heriotzean egin zitueneki, balio baitute mundu guzian zorduten baiño geiago, eta geiago konparaziorik bage. Eta ala Meza ongi enzuten duen egunean geiago pagazen du ez es baruzen den egunean, edo diziplinazen denean, edo berze honlako obrak egiten dituen egunean: zeren Mezakoan nola ofrezizen baitiogu Iaungoikoari, Iesu Kristo ematen zaizkigun, hark merejitu zizkigun ondasunak, paga dezagun zor duguna geuren bekatuengatik: eta oeki batean juntazen ditugu guk geuren partes egiten ditugun ondasunak. Hau onla izanik alas, eta egun horos erorzen garadenean bekatuetan, eta ala zorraren azpian zerda gauza oberik joatea baño Meza-ra, eta an aietatik librazea.

Bada erdesteko Iaungoikoarenganik geien inportazen zaiguna baita Espiritu sanduaren grazia ongi bizizeko, eta heriotze onbat izateko, eta onetako bear diraden ondasunak erdesteko, eta Iaungoikoaren serbizuan obetus joateko Sakramentu sanduak errezebizeas landara gauzarik obere-na da, Meza ongi enzutea, eta an eskazea dizkigun Aita eternoak Iesu Kristo bere Seme oneriziaren amorekatik.

Alaber arimak purgatorioan daudenak sokorrazeko Iaungoikoak libra dizan ango pena, eta trabaju andi aietatik, da gauza ziertoa, eze Meza errateas, edo erran erazizeas landara aien faboretan: mediorik oberena dela Meza enzutea, eta an ofratu Iesu Kristo aien, eta gure Iauna Aita eternoari, eta otoiz egin aljiek zorduten zorras paga dedin Iesu Kristok merejitu ziskigun ondasunetan, eta libra dizan pena, eta trabaju aietatik.

Alaber erdesteko Iaungoikoarenganik munduonetan bizizeko, bear ditugun gauzak, osasuna, hazienda, eta berze gauzak, mediorik oberena da, Meza ongi enzutea, eta otoitz egin eman drazkigun Iesu Kristoren amorekatik on diraden bezala bienabenturanza erdesteko.

Bada librazeko anbat peligro, eta gaizetatik, eta tentazioetatik bekatuan herorzeko anbat maneras, egunoros demonioak, munduak, eta aragiak, prokurazen baitute beren partetik herori gaitezen, eta berze gaiz, eta desgraziarik asko egunoros gerta baitakikegu, biziaren osasunaren honraren, eta haziendaren kontra, zeñetatik ezin yolako maneras libra baikaitetze Iaungoikoaren faborea bage: remediorik oberena da Meza enzutea, presentazen garadela Iesu Kristo gure salbazallearen aurrean, eta eskatu libra gaizan gaiz guzietatik ala arimaren, nola gorpuzaren, eta munduonetan ongi bizizeko kontra diradenetatik, zeren hau ongi egiten dela Iaunau atrako da gure fabore librazen gaituela gaiz guzietatik, eta Aingeru sanduak Iaunau akonpañazen dutenak atrako dirade gure laborazera, demonioaren, eta berze etsaien kontra, eta ala atrako garade biktoreareki.

Azkenean guzis auniz lagunzen da Meza ongi enzutea fiteago, eta obekiago erdesteko Iaungoikoarenganik eskazen diskiogun gauza guziak. Emendik atrazen da nola al dakienak, bear lukela egunoros Meza enzun andik atrazen diraden ondasun, eta probetxuengatik.

Bigarren partean, eta zorzigarren libruan, non eskribazen baitirade gauza señalatuak eginikakoak biktoreiako monasterioko frailen denboran kontazen da exemplo bat konsiderazio anditakoa, eta da manera onetan. Erregia Portugalekoa doña Isabel izandu zen Iaungoikoaren zeruizari andia, zuen limosnero bat, zeñek repartizen, eta ematen baizituen Erregiaren manus limosna andiak jende bearrei, Errege don Dionis aren Senarraren paje batek inbidias erran zion Erregeri, dakiela orren Majestadeak eze Erregia andrea dagola afizionaturik bere limosneroas konbeni den baiño geiago: Errege espantatu zen; etzuen sinestatu xoil, baia gelditu zen kuidadotan: ematen ziola, zer pensatu, determinatu zuen erran zionagatik illzera bere emaztearen limosneroa, baia disimulatuago egiteagatik, Ioan zen egun artan berean saldi gañean kanpora, pasatu zen galzina labe baten aldetik, non ari baizira gizon bazuek labeari su ematen, onetan ari ziradenei erran zioten sekretuan, eta manatu zituen eze bere jauregiko mutil bateki igorriko ziotela erratera ea egin duzuen Erregeak manatu zinduztena, eta hau onla erran, eta bereala egozi zazue labera, zeren ala konbeni zela, respondatu zioten puntualkiro eginen zutela aren Majestadeak manatu bezala. Biaramun goizean, igorri zuen Erregek bere emaztearen limosneroa mandatu oneki, baia Iaungoikoak nai izandu zuen libratu peligro onetatik manera onetan. Gizon hononek zuen debozio akostunbrazen zuena egun oros Meza enzutea, zioaiela bada bere manatu zizaiona egitera, eta pasazen zela Elizako atari batetik jozuten ezkiela adi zezaten Meza erratera zioaiela Sazerdotea, nai zuenak sartu Mezaren enzute-



ra: bere kostunbre onareki kunplizeagatik Erregiaren limosneroa sartu zen Elizara Meza enzutera, Meza enzuten zegon bitartean, deseoreki Erregeak jakin leen baio leen il zen, igorri zuen berze mutila inbidias abisatu zuena, eta nola ezpaizuen kuidadorik iduki Elizan sarzeas, eta ez Meza enzuteas baizik, leen baño leen bere jaunari il berria eramoko ziola joan zen leenik yon ere gelditu bage. Galzina labera eldu zen bezala erran zioten an ari ziradenei, ea egin zuten Erregeak manatu zituena. Eldu zizaizkion bereala, eta egozi zuten labera, eta an akabatu zen, berzea kulparik etzuen, bere debozio onareki kunplitu, eta joan zen bere mandatuaren egitera eldu zenean erran zioten labeari su ematen ari ziradenei Erregek igorzen niak jakin dezadan, ea egindu zuen, hark manatu zindustena, eta nola inbidias akusatu zuena joan izandu baizen leen, eta labera egozi baizuten, respondatu zioten baiez. Ioanzen respuesta oneki Erregena ikusirik hau bizirik, eta ikasirik nola berzea ill zen, informaturik ongi negozioas aurken duzuen gaizki, eta falsokiro akusatu zuela Erregia, eta aren limosneroa, eta ala kulparik etzuen Elizan sartu Mezaren enzutera, eta Sakramentu sanduaren adorazera, eta ala Iaungoikoak libratu zuela, eta berze bellakoa inbidiosa falsokiro akusatu zuena ala Erregia, nola aren limosneroa bere bekatuaren pena, eta gaztigutan gaztigatu zuela, eta ala ez Erregia andreak, eta ez gizon onek zutela kulparik.

San Antonino Florenziakoak eskribazen du, atra ziradela lai egun bates, bi lagun ziudade batetik, kanpora plazer arzera heizara, ohetatik bata iduki zuen kuido Meza enzuteas, eta berzeak ez, ziazela bada biak junto bideas: asizen denbora nastekazen aizes, eta ziazten odeiak kargatus egiten zituela ortosak ain andiak, eta oñazturak, eze baizirudien munduak ondatu bear zuela. Onetan enzun zuten oi u bat aizean, erraten zuela, emok, emok, gelditu ziraden espantaturik, eta arriturik, baziazten bere bideas, honla ziazela herorizen ozmiarri bat, eta eman zion Mezarik enzun etzuen desdixatuari, eta gelditu zen illik. Berze laguna gelditu zen ain espantaturik, eta kasik juiziorik bage, etziakiela zer egin: pasatu zen aurrera bere bideas honla ziala enzun zuen berze oi u bat, erraten zuela emok, emok, baia bereala enzun zuen berze oi u bat, erraten zuela, ezin ziroketat, zeren enzun dik, *Verbum caro factum est*, baizen erratea, egun artan enzun zuela Meza zeren Mezaren azkenean erraten da Iuandone Iuanes Ebanjelistaren Ebanjelioa non baitaude eskribaturik, itz ohek: zeñetan adizera ematen baizaigu nola Iaungoikoaren Semea egin zen Gizon, zeñen medios libratu bear baitugu gaiz, eta peligro guzietatik eta erdezi ondasun guziak. Argatik erranuen ez lukela Mezatik yorkere atra bear Ebanjelio sanduau enzun bage.

Zesariok kontazen du peregrino bat zerizola Binando, juanzela berze lagun batzueki erromerian Ierusalena, gertatu zen eze Ierusalena eldurik onen lagunek Meza enzun, eta determinatu zuten partizera Bazkoa erresurrezioko egunean, Binandok erran zioten lagunei egun Bazkoa eguna da, arrazio da egun Sanduonetan gauden emen, eta ofiziak enzun dizagun. Etzuten nai izandu baizik partitu ziraden bereala, gizon honau gelditu zen egunartako ofizioak enzuteagatik, biaramunean partitu zen laguneren atzean, juntatu zizaion gizon honratu bat zaldi gañean zioala, solas eman, eta erran zion nondik zatorz gizon hona orla zeurori bakarrik, respondatu zion Ierusalendik nator lagunak nai nuen geldi zitezen egun arteraño, eta etzuten nai, eta noaie neurau, zaldi gañean zioanak erran zion igan zaitez ene zaldionen anketan, igan zen bereala, eta egun artan berean ezarri zuen bere hiriaren aldean, eta erran zion Iesu Kristori emozkiozu graziak zein honratu, eta zeruizatu baituzu egun Meza enzuteas, eta ofizioak enzuteas, eta onengatik utzi baitituzu lagunak, eta zeren igorri bainau ezarri zaizadan ain bide urrutitik egun bates zure errian. Hara non den zure etxea zoas, eta erran drazotezu Iaungoikoak zure baitan egin duen marabilla ain andia. Aidek, eta adiskidek, ikusi zuten bezala erran zioten, non dituzu lagunak, respondatu zioten, egun goizean nengon Ierusalenen, eta aiek atra ziraden atzo, ni an utzirik, eta geros eztitut ikusi, baia etzuten sinestatu, aitzetik erraten zioten, gizon oni heratu zaio, erran dezala egun egonik Ierusalenen, datorrela ain bide urrutitik. Nola batek, eta berzek erraten baizioten heratu zaio, joan zen sobratu zizaion diruareki Iuandone Iakuera, eta andik etorri zen berze lagunak Ierusalenetik etorri baino len. Andik denbora auniz pasatu eta etorri ziraden lagunak, hirikoek ikusi zitusten bezala erraten zioten, Binando Bazkoa biaramunean etorri zen, eta erran draugu zuek Bazko egunean partitu zinatela Ierusalendik hura an utzirik, eta eztugu sinestatu. Respondatu zioten baiez, hark erran ziskioten guziak ziradela egjak, oneki eman zioten sineste, eta barraiatu zen marabilla hau herri aietan guzietan, eta Iaungoikoak alabatu zuten.

Beda honratuak Ingalatierako historian ogei eta bigarren kapituloan eskribazen du Imma zerizon mutil gazte bat, batalla batean zauritu, eta artu zutela preso, eta eramo zutela kautibo, sendatu zen bezala ezarri zizkioten kateak, eta grilloak, eta egunoros goizeko bedrazi horduetan, berak laxazen, eta erorzen zizaizkiola, eta geldizen zela libre, onen kausas aunizek nai zutela beren etxetan iduki, eta ala izandu zuela auniz Iaun, eta nagusi. Batek ikusirik nola laxazen zizaskion grilloak, eta kateak, eman zion libertadea, leen juramentu arturik igorriko ziola biak igualatu ziraden



kantidade bat erreskateagatik, Ioan zen bere errira, eta igorri zion, igoa-latu ziraden kantidade erreskateagatik. Iakin, izandu zuen, eze aren Anaie sazerdote batek egunoros arengatik erraten zuela Meza, eta Sakramentu sandua altxazen zuenean genzen zizaizkiola loturik zeuzkien burniak, eta ala geldizen zela libre nondik etorri baizizaion libertatea izatera.

## AMARGARREN KAPITULOA

### Zer egin bear den Mezakoan, eta nola egon

Meza enzuten duenak lenbizikorik egin bear duena Sazerdotea, Sakristaniatik atrazen den bitartean Meza erratera, da, otoitz egin Iaungoikoari demon bere faborea, eta grazia Meza ongi enzuteko, aren dibina Majestadeari agra dakikon bezala, erraten duela. Iesu Kristo ene Iauna suplikazen drauzut eman drazadazun zure faborea, eta grazia egoteko Mezan, konzienzia garuiareki, atenzioreki, eta erreberenziareki, zuri agradazen zaizun bezala, oroitzen naizela enegatik zeure bizian, eta heriotzean egin zinduzen ondasunes, eta pasatu zinduzen trabajues.

Bigarren egin bear duena da egon al dagien debozio, eta atenzio guziareki. Ezta egon bear arrimaturik, eta ez belauriko solamente belaubates, baizik bies, eta ez minzazen dela bata berzeareki, eta ez alde batera, eta berzera begirazen duela, zeren baita miramentu guti, eta gaizki agiri den gauza honla egotea Iesu Kristoren aurrean. Irurgarrena, ez izanagatik gauza gaistoa orazio erratea errosario, eta berze itzes erraten diraden orazioak, guzis da obeago ohek utzirik egon biotzas pensazen, eta konsiderazen duela Mezan diraden misterioak, nola adizera eman baita tratatu denean zer egin bear duen Meza enzuten duenak leenetik asi, eta azkene-raño: zeren honla enzuten da obekiago, eta Elizak nai duen bezala. Biae konsideratus erran diraden misterioak, eta Sazerdoteak erraten dituenean itzak Meza enzuten duenak adizen dituen bezala. Latinik adizen badu, biae horduan bere baitan erranes biotzas Sazerdoteak erraten duena, manera onetan erraten duenean, ni bekataria konfesazen naizaio Iaungoikoari, eta aurrera konfesazen duela dela bekataria. Alaber Meza enzuten duenak egin bez hura bera. Eta Sazerdoteak alabazen duenean Iaungoikoa, edo eskazen dionean konbeni zaiguna alaber Meza enzuten duenak, alababez, eta eska brazo, hark bezala, eta ala berze gauzetan biotzas bere baitan sekretuan, eta ez itzes berze Mezan daudenek adi dezaketen bezala. Latinik eztakienak, eta ala adizen eztuenak zer Sazerdoteak erraten duen beuka intenzio, eta deseo egiteko Sazerdoteak Elizako ministroak egiten duena. Eta oratioak itzes erraten diradenak, eta Salmoak Penitentsiaskoak utzi biz berze denboretako, eta yolako maneras eztezala utzi ofrezizeko Mezako sakrifizioa. Eta komekazea biotzas, eta deseos leen





erran den bezala: zeren ohek egiten dituela ongi izanen du parte Meza enzuten duen horos, Iesu Kristoren obra, eta ondasunetan.

Adbertizen da, eze Meza enzuten duenak eztuela erran bear itzak berze Mezan daudenek adi dezaketen bezala, baizik bere baitan baratxe-ko, zeren Meza erraten duena, eta ez berzeak estorua eztizan.

Nola bear den Mezan egon, lenbizikorik, erranen da Meza kantatuan, gero erreztatuan. Meza kantatua misale Erromakoak erakusten digunaren konforme bear da enzun bazutan txutirik, eta berze aldi bazuetan belauriko, berze bazuetan jarririk, sazerdotea atrazen denean sakristiatik, eta erraten duenean: *In nomine Patris, & Filij, & Spiritus Sancti judicame*. Eta konfessioa, eta berze lenbiziko itzak, arik eta Aldarera igan arteraño, egon bear da belauriko gero asizen denean Mezan, eta erraten: *Kyrie eleyson, Christe eleyson*, jarririk. Gloria kantazen denean txutiturik, eta alaber orazioak erraten diradenean, urte guzian: barur egunetan, Garizuman, Karta denboretan, eta Abenduko astregunetan kantazen diraden orazioes landara: zeren ohetan egon bear du Meza enzuten duenak belauriko, eta alaber requiem Meza kantazen denean, bijilietatik bear dirade atra Bazkoa eguberri bezpera, eta Bazkoa Garizumakoarena, eta Espiritu sanduarena, zeren egun ohetan bear da egon txutiturik berzetan bezala.

Epistola bear da enzun jarririk, eta alaber ala dagoke arik eta Ebanjelioa asi arteraño.

Ebanjelioa bear da enzun txutirik solamente bear da jarri belauriko Iuan done Iuaniszen Ebanjelioan, itz aiek erraten diradenean, *Et verbum caro factum est*. Eta San Matheoren Ebanjelioan, itz aiek erraten diradenean: *Et procedentes adorauerunt eum*. Eta Garizumako laugarren asteo asteazkenean leizen den Ebanjelioan erraten diradenean itz aiek, *Et procedens adorauit eum*. Eta pasioa leizen denean erraten denean, *expirauit*: Zeren ohetan Ebanjelioa erraten duena jarrizen da belauriko alaber bear du Meza enzuten duenak, eta jaiki Sazerdotea jaikizen denean.

Kredoa kantazen denean bear da egon txutiturik solamente erraten denean: *Et incarnatus est de Spiritu sancto & homo factus est*. Meza erraten duena jarrizen da belauriko, alaber bear du jarri belauriko Meza enzuten duenak, eta jaiki Sazerdotea jaikizen denean. Kredoa akabatu, eta arik eta prefazioraino dagoke jarririk, prefazioa bear da enzun txutirik, arik eta asi arteraino erraten: *Sanctus, sanctus, sanctus*. Zeren horduan bear da jarri belauriko. Eta ala egiten dute gaizki jarririk egoten diradenek, nola asko egoten baita jarririk: *Sanctus sanctus*. Erranagatik, bai, eta honla egoten baitirade arik eta Meza erraten duenak Hostia konsagrazeko eskuetan artu arteraino, ezta anbat etxeden bear baizik *sanctus*, enzun ezan bezala bear

da jarri belauriko, zeren horduan Aingeru sandueki batean bear du Meza enzuten duenak konfesatu, eta alabatu Trinitate sandua erraten duela Sandua, sandua, sandua, zarade Iauna Aita, eta Semea, eta Espiritu Sandua, sandua izateas anbat preziazten da Iaungoikoa, eta ala gogotik, eta plazer arzen dugula geuren baitan erran bear ditugu itz ohek, eta bedekatua da Iaunaren izenean datorrena, eta etxeden, honla munduaren salbazallearen, eta zeruko Errege, eta Iaunaren etorzeari Aldarera, ofrezizeko sakrifizioan bere Aita eternoari. Bada gauza ohek arrazio da egin ditezten belauriko daudela, eta honla egon bear da arik eta Meza erraten duenak Iesu Kristoren gorpuza, eta odola errezebitu arteraino. Gero dagoke jarririk arik eta azkeneko oraziak erran arteraino, zeren ohek bear dirade enzun belauriko, lenbiziko oraziak bezala, han erranden denboras landara, bedezio Meza erraten duenak azkenean egozten duenean bear da egon belauriko, ala Meza kantatuan nola erreztatuan egiten dute gaizki, bedezioa egosten denean jaikizen diradenek.

Meza erreztatua guzian bear da enzun belauriko, Ebanjelioas landara, solamente bear da Ebanjelioan belauriko jarri, Iuandone Iuaniszen Ebanjelioan erraten denean, *Et verbum caro factum est*, eta san Matheoren Ebanjelioan erraten denean, *Et procedentes adorauerunt eum*, eta berze erran denean. Meza kantatueta, nola bear den jarri belauriko, Sazerdotea jarrizen denean, eta jaiki hura jaikizen denean, jakinika Konzilio Tridentinoak auniz konbeni dela, Kristio fielek dakiten zer den Meza, eta nola bear den enzun, eta zerden han ofrezizen den sakrifizioa, eta nola bear den ofratu, eta berze misterioak, manazen ditu arimes kuido, eta kargu dutenak, Igandetan eta Iaietan Mezakoan deklaraz drazoten zerbait beren hirikoei partikularkiro han ofrezizen den sakrifizioaren misterioak, eta alaber manazen du Sinodoak lenbiziko libruan, irurgarren kapituloan, zerengatik Latinik eztakienak, eta leizen, nondik jakinen du, erakusi ezpadrazote? eta ez jakitetik dator anbat kalte, eta dainu, eze auniz baitoai Meza, eta ezpaitakite zertara, eta ez zer den Meza, eta zer den han ofrezizen den sakrifizioa, eta nola bear den ofratu, eta berze gauzak, eta ala daude ilak bezala biotzas den bezanbates, eztutela obratan ezarzen, Fedea, Esperanza, eta Karidadea, eta berze gauzarik asko, eginen bailukete baliakite: eta ala Mezatik atrazen dirade, ez anbat probetxureki nola atrako bailukete baliakite. Zein da Kristioa baliaki nola Kristo gure Iauna Meza erraten den horos jaizizen dela zerutik Aldarera, zeruan geldizen dela, eta Mezan daukagula presentean geureki etorririk gure amorekatik, eta guri ondasun egiteagatik miserikordias, eta ondasunes beterik, eta deseoreki, eta podoreareki berareki munduan, ibildu zenean, idukitu zuenareki, guri



geuren bekatuak barkazeko andiak, eta auniz izanagatik: ezpailuke alabatuko, eta adoratuko, eta graziak emanen Iaun ain onari egiten dizkigun, ondasun, eta mertxedengatik: eta ez pailuke sartu nai bere biotzean, eta onerizi bere entraña guzies, eta zeruizatu nai luen gauza guzietan. Zein lizate atrako bailizate Mezatik han ofrezizen den sakrifizioa ofratu bage alas, eta artara datorrenean zerutik aldarera, ofrezi drazoten bere Aita eternoari, bere merejitu zizkigun obra, eta ondasun guzieki: eta aren medios otoitz egin drazogun barka drazkigun geuren bekatu guziak, eta sokorra gaitzan geuren nezesidade guzietan erremediazen gaituela guzietatik, eta dizkigun geuren arimen salbazeko, bear ditugun gauza guziak. Gauza ohek guziak, eta berze[r+t]jik here bai eginen lituzkete baliakizkite orai erran diraden misterioak. Argatik Apezek, eta Bikarioek edo, edozein personek baitute arimes kargu egin bezate Konzilioak, eta Sinodoak manazen duena erakustean Igande bates misterio bat, berze bates berze bat, eta ala berzeak, eze hau egin badedi bear den bezala arte guti bates baizik ezpada here da gauza ziertoa aurkenduko dutela probetxua beren karguko dituztenetan, eta konfesioak, eta komekazeak, eta ondasun guziak eginen dituztela, obekiago.

*Iaungoikoak dituela eskerrak, eta alabanzak.*